

DATORRENA

Herritartasunaren gaineko «bidesaria»
igo nahian **MAITE UBIRIA BEAUMONT > 3**

PANTAILA TXIKIAN:

Animazioa ez da soilik haurren
kontua **GAIZKA IZAGIRRE BROSA > 17**

2022ko urtarrilaren 8a | XVI. urtea • 756. zenbakia
0,50 euro


GAUR8

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



MINAREN ETA BIZITZAREN ORBAINAK

IZAN IÑURRI SARE BAT DA, MINBIZIAREN LATZA SUFRITU DUTENENTZAKO ATERPE GOZOA; AKONPAINAMENDUA, BESARKADA, BABESA. 2022. URTE BERRIARI EGUTEGI BEREZIA PARATU DIOTE. MINBIZIAREN ARRASTOA GORPUTZEAN ETA ARIMAN DAUKAN EMAKUME KUADRILLA BAT BILUZTU EGIN DA, GORPUTZ KLASE GUZTIAK IKUSARAZTEKO ETA, BATEZ ERE, GORPUTZ KLASE BATZUK EZ DAITEZEN IKUSEZIN IZAN. **> 12** Gorka RUBIO | FOKU



Elkarrizketa: Barish Tugrul,
 kurduen aurkako errepresioa
 aztertu duen soziologoa 04

Siwiaren oasia; Egiptoko berbereek
 ohiturei eta hizkuntzari eutsi
 diote. Noiz arte? 07


Minaren eta bizitzaren orbainak
 jaso dituzte egutegi batean Izan
 Iñurri elkartekoek 12

Pantaila txikian: Animazioa ez da
 soilik haurren kontua 17

Elkarrizketa: Mikel Lizarralde,
 esklerosi anizkoitza
 gaixotasuneko eragile soziala 22

Sarean 29

Juantxo Egañaren behatzulotik 31



SINADURAK:

- 03 **Maite Ubiria Beaumont:**
 Herritartasunaren gaineko
 «bidesaria» igo nahian
- 10 **Saioa Aginako Lamarain:**
 Distopiak
- 11 **Iñaki Altuna:** Omikronek
 ageriago utzi duen errealitatea
- 20 **Ana Elozegi Serna:**
 Pandemiaren biharamuna
 urte berriaren erronka
- 21 **Iker Barandiaran:**
 Kritikotasuna ez da bando
 batean lerrokatzea
- 27 **Beñat Gaztelumendi:**
- 28 **Antton Izagirre:** Desio bat
 eta bakarra
- 28 **Miren Azkarate Badiola:**
 Auto
- 30 **Maite Oronoz Anchordoqui:**
 Sare sozialetako hizkuntza
 automatikoki aztertzen
 depresio zantzuen bila



{ datorrena } **Maite Ubiria Beaumont**

Herritartasunaren gaineko «bidesaria» igo nahian

Urtarrilaren 1ean abiatu zen atzera-kontaketa. Apirilaren 10 eta 24an izanen diren frantziar Presidentetzarako bozetara darman egutegiaren orriak pasatzeko garaia. Bere azkenekotan den astean frantses Asanblea Nazionalean bizi izan den giro zalapartatsuak hainbat seinale eman ditu. Entzundakoaren arabera, ondoko hilabeteetan osasun krisiaren kudeaketaren eta Eliseoko besaulkia eskuratzeko lehiaren artean bizikidetzaz zaila aurreikus daiteke.

Hilabete bukaeran azkartuko da lasterketa. Hauteskunde prozesuan parte hartzeko hautesleei zuzenduriko deialdi publikoa argitaratu orduko presidentegai bilakatu nahi duen ordezkari orori kontuak ateratzeko ordua helduko zaio. Hauteskunde prozesuari ezarritako blindajea tartean, hautagaiek 500 bat aitabitxi-amabitxi behar dituzte atzeman. Auzapezetik gorako kargudunen artean 500 sinadura behar dituzte bildu, sostengu banaketari buruz beste hainbat baldintza zorrotz errespetatuz.

Presidentetzarako hautagai bik, Jean-Luc Melenchon Frantzia Suminduaren tribunoak, batetik, eta Errepublikanoak eskuinaren marka ofizialaren hautagaiak, Valerie Pécressek, bestetik, tonua igo dute txerto pasaporteaz ezartzea xede duen lege egitasmoaren eztabaidaren baitan. Giroa gehiago berotzeko, Asanblea Nazionalean pizturiko suteari erregaia bota dio karguan jarraitzeko asmoa izanik ere oraindik bere hautagaitza aldarrikatu ez duen Emmanuel Macronek.

Jarduneko presidentek txertoa hartu ez duten 5 milioi herritarrak izorratzeko duen gogoa aitortu zuen "Le Parisien" kazetari emandako elkarrizketa batean.

Arduragabetzat jo zituen, bide batez, txertatzeko hautua egin ez duten pertsonen herritartasuna kolokan emanaz. Adierazpena ezin da inondik inora beroalditzat hartu. Ez baita zuzeneko saio batean gertatu, argitaratu

aurretik Eliseoko zuzentzaileek ongi miatutako testu idatzi batean baizik.

Zentzu horretan, presidentearen karguari aitortu zaion neutraltasun printzipioa albo batera uzteko borondatezko hautua egon dela iradoki daiteke. Agian irizpide hori, botere banaketa bezala, nardargarria bilakatu delako frantziar Errepublikaren presidente, Europar Batasuneko txandakako buruzagi eta hautagai gisara denbora berean jarduteko asmoa duen agintariarentzat.

Ez da ateraldi bat, beraz. Errepublikaren zutabe nagusia den herritartasun printzipioaren berrirakurketa behin baino gehiagotan mahai gainean jarri baitu Macronek. Segurtasun indarren defentsa egiteko herritar zintzoen eta manifestari biolentoen arteko sailkapena asmatu zuen 2018an. Hala, Txaleko Horien mugimen-

Lehentasunezko zerbitzuen pribatizazioak pandemiari aurre egiteko baliabideak hustu ditu. Arduragabekeria etsaiaren doktrinaren bidez estali nahi du Eliseok

duaren garaian gordintasunez irudikatu zen polizia erduari buruz aldebakarreko kontakizuna sustatu zuen.

Osasun krisiaren aitzakiaz autoritate markoa oraindik ere gehiago indartzeko hautua ez da kasualitatea.

Herritarrek eginbeharrak badituztela oroitarazi zuen Macronek berriki. Oinarrizko eskubideen jabe izateko «bidesariak» kostu ordainezina zuela, esaterako migratzaileentzat, jakina zen. Osasun politikari buruzko eztabaida ukatuz, jendearen asaldura norabidetzeari lehentasuna eman dio orain Macronek: (z) herritar gogaikarri batzuk dira errudun. Balio partekatuak hozkailuan sartu eta estrategiatzat duen «lemazain ausart bakar» gisa agertzeko hautua egin du. Mozkinen kalkulua. •

«Turkian, agian, judizioz kanpoko praktikak egiten hasiko dira»

BARISH TUGRUL

SOZIOLOGOA

Turkiak kurduen aurka berrabiarazi duen indarkeria eta errepresio bidea aztertu du Barish Tugrul soziologoak.

Miguel Fernandez Ibañez



Iragan ekainaren 17an, turkiar ultranazionalista bat, Herrien Alderdi Demokratikoaren (HDP) egoitzan sartu zen Izmirren eta Deniz Poyraz gaztea hil zuen. Uztailaren 14an, gizonezko batek dozenaka bala jaurti zituen HDPk Muglan duen egoitzaren aurka. Hilabete bereko 19an, jatorri kurduko zazpi sasoikako langile jipoitu zituzten Afyon eskualdean. Handik bi egunera, Meram hirian, Konyan, tiroz akabatu zuten Hakim Dal. Uztailaren 30ean, familia kurdu bateko zazpi kide exekutatu zituzten Dedeogullarin, Konyan. Familia honek berak, maiatzean, hamarnaka pertsonaren eraso pairatu zuen, etxea utz zezaten.

Garaia ez da samurra izaten ari Anatoliako herri kurduarentzat, batez ere Turkiako mendebaldean bizi eta turkiarren artean gutxiengo direnentzat: azken elkarrizketa prozesuaren hausturaren ostean, Recep Tayyip Erdogan islamistaren gobernuak abiatu zuen errepresioa berriz ari da herritar kurduak harrapatzen. Indarkeria bide hau aztertzeko, GAUR8 Barish Tugrul soziologoarekin aritu da, zeinek duela gutxi arrakastaz defendatu zuen bere tesia, "A generational analysis of the social reproduction and legitimacy of political violence in the Basque and Kurdish cases".

«70eko hamarkadan, Euskal Herrian Burgosko prozesua eta frankismo berantiarrek baldintzatutako belaunaldi bat jaio zen. Ezker abertzaleak deus ez zela aldatu zioen, frankismoko goi kargu politiko zein militarrek bertan jarraitzen zutelak. Eta ulertzen dut, baina aurrerago aldaketa garrantzitsuak izan ziren, hala

nola euskara eskoletan sartzea edo Gernikako Estatutua. Turkian, 1980ko estatu-kolpeak mugimendu kurdu guztiak ezabatu zituen. Soilik Kurdistanango Langileen Alderdiak (PKK) biziraun zuen. 1990eko hamarkadan bortizkeria gehiago izan zen. Orain berriz ere badago. Hau belaunaldiz belaunaldi gertatu da eta, modu honetan, trauma erreproduzitu egin da», azaldu du Tugrulk, bi herrialdeetako gatazkak konparatuz. «Euskal Herrian belaunaldien arteko haustura bat dago 80ko hamarkadan, baina Kurdistanen ez: sortzen dituzten alderdiak ixten dituzte, politikariak akabatzen dituzte edo erbesteratu egin behar dira», gehitu du Hacettepe Unibertsitateko irakasle honek.

Akabatuak izatearen beldur dira kurduak eta, hori dela-eta, oraindik ere PKKren erresistentziarekin bat egiten dute. 1984an Turkiako estatuko eragile basailuen aurka borroka armatua hasi zuen PKK-k, Ankararekin bat zetozen buruzagi tribal kurduak barne. Orduetik, 45.000 pertsona baino gehiago hil dira gatazka honen ondorioz, batez ere turkiar Estatuaren indar erabilera neurrigabearen ondorioz. 1999an, Abdullah Öcalan, PKKren buruzagi karismatikoa, turkiar agintarien esku utzi zuten. Handik gutxira, milizia marxistak bere helburua aldatuko zuen: ez zuen independentzia bilatzen, baizik eta kurduen eta Anatoliako gainontzeko biztanleen oinarrizko eskubide demokratikoak bermatuko zituen autonomia. Garrantzitsua da nabarmentzea, gaur egun, kurduen erdiak baino gehiago Anatoliako mendebaldean bizi direla: Istanbul, Ankara edo Izmir hirietan auzo

osoak okupatzen dituzte. Errealitate hori 1960tik aurrera Kurdistan pobretutik izandako lan migrazioen eta 1990etik aurrera bi milioi kurdu inguru beren lurraz uztera behartu dituen lur errearen politikaren ondorioz sortu da; lehenik herrixketatik iristen ziren, eta, berriki (2015-2017) hirietako borroka armatuaren ondoren, Nusaybin, Diyarbakir, Cizre edo Sirnak hirietatik. Drama horrek bere horretan jarraitzen du, eta, gainera, XX. mendean hasieran Kurdistan lau herrialderen artean banatu zuten muga lerroek baldintzatzen dute: Iran, Irak, Turkia eta Siria.

Turkiartzeko prozesuak ildo beretik jarraitzen du 1923tik gaur eguneraino: turkiarrak Kurdistan kolonizatzerantz bidaltzen dituzte eta, bide batez, kurduen sakabanaketa behartzen dute.

Dersimgo sarraskiaren ondoren (1938), kurduak lekualdatzeko estrategia bat hasi zen. 90eko hamarkadan antzeko zerbait egin zuten herrixkak erre eta PKKren landa loturak moztean. Hasieran estrategia militar ona zirudien, baina ustekabeko ondorio sozialak izan zituen: kurduen zati batek ghettoak sortu ditu Istanbulen, eta han tratatu arrazista jasotzen dute turkiarren aldetik, eta horrek areagotu egin du PKKn hiri turkiarretatik etorritako kurduen kopurua.

2015ean amaitu zen lasaitasun aldi baten ondoren, berri ere politikari kurduak espexeratzen dituzte eta alkatetzak kentzen dizkiete. AKPren marra gorria izan arren, ilegalizazioaren itzalak islamistak jazarri zituelako lehen bi legealdietan,



Argazkiak: Miguel FERNANDEZ IBAÑEZ

«Emakumeek Kurdistanen emandako aurrerapausoak ezin dira ukatu, baina armen mehatxupean izan da posible»

HDP legez kanpo uzteko mehatxua ere egiten diete. Erdogan ausartuko al da urrats hori egitera?

Hauteskundeak irabazteko behar du. HDP legez kanpo uzten badute eta buruzagi nagusiei aurkeztea debekatzen badiete, aldi berean, Ekintza Nazionalistaren Alderdiaren (MHP) eta AKPren aldeko hauteskunde sistema aldatuko da. Turkiako estatu sakonaz hitz egin dezakegu, 2015etik jokoan sartu baita berriro. Erdoganek aliantza bat behar du eta MHPrekin dago, non estatu sakonak presentzia duen. Egunetik egunera gehiago dago haien mende. Erdoganek beste aukera bat izan nahiko luke, AKPren barruan pozik ez dauden pertsonak daudelako, baina ez dauka. Aliantza gatazkatsua eta hauskorra da, eta MHPren lerrotik urruntzen denean, hauteskundeak izango dira. Eta egungo krisi ekonomikoaren pean, Er-

doganek hauteskunde horiek galdu egingo lituzke.

Orain aliantza ofizial bat ikusten dugu kurduen eta CHP alderdi kemalista eta oposizioko nagusiaren artean. Badirudi funtzionatzen ari dela, 80ko hamarkadaren amaierako eta 90eko hamarkadaren hasierako kurduen eta SHPren arteko aliantza ofizialean ez bezala [aldi baterako legez kanpo utzitako CHPren oinordekoetako bat]. Zer espero duzu haiengandik?

CHP alderdia asko aldatu da Kemal Kiliçdarogluren gidaritzapean, baina kontuan izan behar da ez dela alderdi homogeneo bat: bere hautesleen zati batek [HDPra hurbiltzeagatik] duen estrategia berria uler dezake, baina beste bat nazionalista da eta, gehienbat, Meral Aksenerri emango dio botoa [MHPren zatiketarik sortutako

Iyi Parti alderdiko buru den emakumea].

Baliteke kurduak CHPko zerrendetan amaitzea?


Erdoganek hori nahi du, CHP PKKren berdina dela ziurtatzeko. Falazia bat bada ere, hautesleek sinestu egiten dute. Kiliçdarogluk, beraz, ziurrenik uko egingo dio aliantza horri. Aksenerrekin akordioa lortzea eta kurduekin harreman onak izatea ahalbidetuko duen orok mantentzea bilatzen du. Turkiako ultranazionalismoaren sektorerik laikoenean, mendebaldeko hirietan bizi direnek, Aksenerri ematen diote botoa. Inkesten arabera, pertsona horiek ez lukete inoiz Erdogan babestuko, CHPn baino gorroto handiagoa diote. Eta horra Erdoganaren arazoa: CHP isolatu eta deabrutu nahi du, baina Meral Aksenerrek joko hori hausten du bere alderdi nazionalistarekin. Orain arte

ezin izan du oposizioko blokea zatitu, baina Izmirreko HD-Pren aurkako atentatuari so eginda, agian judizioz kanpoko praktikak sartuko dira jokoan.

Siriako eta Irakeko gatazken ondorioz, PKK-k indarra galdu du Ipar Kurdistanen. Zer ondorio izan ditzake sasi-estatuaren pertzepzioan, beldurraren eta agintearen ku-deaketan?

PKK-ko buruzagi batzuekin hitz egin nuen Qandilen [PKK-k Iraken duen gotorlekua], eta galdera bera egin nien. Uler-tzen dut Sirian estrategia alda-keta bat gertatzen ari dela, bai-na baita Anatolian boterea galdu dela ere. Erantzun zida-ten ez zutela zilegitasun sozia-la galduko, herriaren babes-a badutelako. Baina nik uste zile-gitasun hori gal daitekeela, ba-tez ere Turkiaren babespean beste botere mota batzuk sor-tzen badira. Indar militarra ga-rrantzitsua da legitimitatea lortzeko. Duela 30 urte ezinez-koa zen emakume kurdu bat protestan ikustea, eta orain le-hen lerroan dago. Kurdistanen emakumearen aurrerapena ukazina da, baina armen me-hatxupean gertatu zen.

Aldi berean, PKKren kontrol-pean dauden hiri mugimen-duak daude, baina Ankara hauek zanpatzen ari da. Erdo-ganek gerrilla probokatu du atentatu bat egin dezan, baina ez du lortu. PKK-k badaki zein diren atentatu baten ondorio politikoak. Mugimendu politi-ko-militarra da, ez bakarrik militarra, eta bestela begiratu Gara-n [Turkiak operazio mili-tarrak egiten dituen Irakeko Kurdistango eskualdea] gerta-tu zenari. MITeko agenteak bahitu zituzten [Turkiako inte-ligentzia] eta hil egin zituzten. AKPren agintaritzari min egi-



teko exekutatu zituzten, erres-katatuko zituela esanez. Eta porrot horrek AKPri erasotze-ko aukera eman zion oposizio-ari, oro har edozein segurtas-un arazo menderatzen baitzuen ordura arte.

Emakumearen presentziak hainbat fase ditu PKK-n, baina gaur egun askapenaren sin-bolo globala da. Gizarte kur-dua oso kontserbadorea dela kontuan hartuta, nola ikus-ten duzu haren bilakaera?

Gizarte kurdua kontserbado-rea da, baina erlijioaren arloan bilakaera nabarmena dago. Gultan Kisanak-en adibidea ja-rriko dizut. Emakumea izateaz gain, alevi kredoa jarraitzen du. Hala eta guztiz ere, Diyar-bakirreko alkate izendatu zu-ten, kreda sunitako hiri kon-tserbadorea. Oso adierazle garrantzitsua da. Hau ez litza-

«Euskal Herrian belaunaldien arteko haustura egon zen 80ko hamarkadan, baina Kurdistanen ez: sortzen dituzten alderdiak ixten dituzte, politikariak akabatzen dituzte edo erbesteratu egin behar dira»

teke gertatuko Konya bezalako hiri turkiarretan, non ez bailu-ke inoiz alevi batek irabaziko. Mugimendu kurduaren eragi-narekin zerikusia duen parale-lismo bat dago, batez ere ema-kumearen barne borrokarekin PKK-n. 80ko hamarkadan, ko-mandante batzuek ez zuten emakumeek parte hartzea nahi. Baina emakumeak gero eta leku handiagoa hartzen du, lehenik rol maskulinoa har-tzen du eta gero askatu egiten da, eta Öcalanek mugimen-duan duen parte-hartzea teori-zatzen du.

Estatu espainoleko oraina Kataluniako lehiak baldin-tzatzen du. Baldintzak bete-tzen al dira borroka armatu-ra jotzen duen talde bat sortzeko?

Munduaren bilakaera izan behar da kontuan. Borroka armatuaz

ari garenean, Kubako Iraultzaren eraginaz ari gara, Aljeriako ge-rraz. Karl Mannheimek “belau-naldi estiloa” deitzen duena da: borroka armatua garai horreta-koa da, nahiz eta denboran luza-tu. Gaur egun, Mendebaldeko baldintzak kontuan hartuta, ez dut egingarri ikusten: beste bide batzuk daude Estatu boteretik kentzeko. Katalunian, politika-riek probokatu egiten dute eta jendeak protesta egiten du kale-etan, baina belaunaldi hori ez dago borroka armatura jotzeko prest. Nazio gisa desagerraraziak izateko beldurrik ere ez dago. Ni-re ustez, eraikitzen ari den dis-kurtsoan zera dago, alde batetik, legeak errespetatzen dituztenak, espainiarrak, eta, bestetik, lege-ak hausten dituztenak, katala-nak. ETArekiko diskurtsoaren antzekoa da, non Estatuak eus-kaldunak banatzen zituen: ba-tzuk onak eta besteak gaiztoak.

SIWIAREN OASIA

Siwa oasian, Egiptoko berbereek ohiturei eta hizkuntzari eutsi diote. Noiz arte?

Basamortuko dunak zeharkatuz, pickupa gidatzen duen Youssef Diabek Egiptoko mendebaldeko

bazterrean dagoen oasira hurbildu gaitu. Gidatzen ari dela, siwi hizkuntzan antzinako kantuak abesten ditu, eta ziur dago bere hizkuntza bizirik aterako dela erabat nagusitzen den arabieraren eraginpetik.

Ipar Afrikako herrialde berbereek (amazigek) hitz egiten duten amazigera hizkuntzaren ekialdeko dialektoa, siwia, arrisku bizi dagoela ohartarazi zuen 2008an Nazio Batuen Erakundeak (NBE).

Siwa erdian dagoen Shali hiri historikoaren atarian, ahoz aho iraun duen hizkuntza horretan

 **HIZKUNTZAK** / Dabid Lazkanoiturburu

Siwako oasia Kairotik 560 kilometrora eta Libiako mugatik gertu (50 bat kilometro) dago, basamortuan. Han aurkitu daitezke Egiptoko azken berbereak. Bertan bizi dira antzinako ohiturei eta tradizioei eutsiz baina beraien hizkuntza, siwia, desagertzen ari da, arabieraren eta interkomunikazio berrien poderioz.

egiten dute hitz eta jolas. Gutxi dira Egiptoko arabieran berez mintzatzen direnak.

Herriaren alde zaharrea kokatutako datilen biltegian, Sulimanek, 60 urtekoak, siwiz agurtzen ditu auzokideak. Hizkuntza duela mila urte ekarri

zuten Ipar Afrikako berbereek egun Egiptoko lurretan den bazter honetara.

Oasian bizi diren 15.000 berbereek erabiltzen dute siwia. Unescok mehatxupean dauden hizkuntzen Atlasean ohartarazi duenez, «hil ala biziko arris-


kuan dago», ahoz aho transmititzen delako eta ez duelako idazkerarik.

Siwiak amazigeran du oinarria. Berbereen hizkuntza eboluzionatu egin da mendeetan eta alfabeto propioa du, baina ez zen sekula Siwara iritsi beste hizkuntzen presioagatik, batez ere arabiarren konkistagatik.

«Gure hizkuntza ez da desagertuko», ziur da artean Diab, amazigen ikurra agerian duen ibilgailuan txango turistikoak antolatzen dituen 25 urteko gaztea. Izan ere, Egiptotik datozen arabieradun turistekin eta kanpotarrekin dituen harremanak albo batera utzita, «mundu guztiarekin» siwiz hitz egiten duela argudiatzen du.

Estatistika ofizialik ez dagoen arren, Valentina Serreli soziolin-

Siwa oasian, Shali hirigune historikoa.
JALED DESOUKI-AFP



IPAR AFRIKAKO BERBEREAK BEREN ESKUBIDEEN DEFENTSAN

guistaren datuen arabera, oasian bizi diren 31.000 biztanleetatik bi heren berberofonoak dira.

Nubiarrekin batera, Siwako berbereek Egiptoko gutxiengoen zerrenda osatzen dute, baina arabiartasuna Estatuaren oinarria da 100 milioitik gora biztanle dituen Egipton.

DESAGERTZERA KONDENATUA

«Ehun urteren buruan inork ez du siwi hizkuntzan hitz egingo. Ahaztua izango da», ziur da Sergio Volpi egiptologo italiarra.

Volpik ia bere bizitza osoa eman du Siwako oasiaren historia aztertzen eta duela bi urte erretiroa hartu zuenetik bertara bizitzera etorri da.

Egiptologoak liburutegi bat zabaldu berri du herrian. Bertan oasiaren hizkuntzari, ohiturei eta historiari buruzko ehun bat liburu aurkitu daitezke. Bere garaian Ipar Afrikako merkataritza ibilbide garrantzitsua izan bazen ere, egun ez dago eskualde honi buruzko dokumentazio handirik.

Volpiren esanetan, azken 500 urteetan berbereen hizkuntzak aldaketa ugari jasan ditu eta beste hizkuntza batzuekin nahastu da, batez ere arabiarrek Afrika Iparraldera iritsi zirenetik eta, hurbilago, Egiptoko Siwako oasia bere egin zuenetik XIX. mende hasieran.

Izan ere, Mehemet Ali Egiptoko erregeordeak 1820. urtean inbaditu zuen arte erabat independentea izan zen oasia.

Siwaren isolamenduari esker mantendu dituzte bertakoek «ohiturak eta hizkuntza», horretan bat dator Serreli linguista. Beraren ustez, amazigeraren erabilera atzean ez dago aldarrikapen politikorik, ohitura baizik.

Berbereak asko dira Magreben, Marokon, Aljerian, Tunisian eta Libian, eta bertako populazioek gero eta ozenago aldarrikatzen dute onarpen identitarioa eta kulturala.

Berbereak bertan bizi dira islamizazioa inposatu zuen arabiar inperioa iritsi baino lehen. «Berbere» izena ere inposatua da. Erromatarrek grekotik hartu zuten deitura (berez «zezeldu besterik ez dakiena» esan nahi du) eta inperiotik at bizi zen herri oro izendatzeko erabili zuten.

Horrela, bada, berbereek «imazighen» esaten diote elkarrri, «amazig» hitzaren plurala, eta beraien hizkuntzan, amazigeran, «gizon askea» esan nahi du.

MAROKO

Maroko da Magrebeko herrialdeen artean amazig gehien dituen. 2014an egin zen errolda baten arabera, biztanleriaren laurdenak baino gehiagok (26,7%) herrialdean hitz egiten diren berbereen hiru dialektoetatik (tarifita, tamazighta eta taxelhita) bat erabiltzen du.

Hori, hiztunei dagokienez. Izan ere, Marokoko biztanleriaren gehiena (%70-90 artean) jatorriz berbera dela uste da, arabiartasunaren prozesu bortitz eta luzearen poderioz beren nortasuna galdu zuten arren.

2011ko Konstituzioak berbereen hizkuntzaren ofizialtasuna onartu zuen, arabieraren ondoan. Baina legea ez zen onartu 2019ra arte eta gutxienez beste hamabost urte beharko dira hezkuntzan eta administrazioan elebitasuna ziurtatzeko. Bitartean, egoitza publikoetan hasi da ikusten tiffinagh alfabetoa, arabiar eta frantses alfabetoen alboan.

2010etik, Marokoko telebista publikoaren kate batek, Tamazight TV, amazig kultura bermatzen du.

Hala ere, administrazioak oztupoak jartzen ditu erregistroetan izen berbereak onartzeko.

Amazigen ikurra nagusi da berbereen manifestazioetan, Rifin (iparraldea) kasu.

Aldarrikapenen artean, urtarrilaren 13an ospatzen den amazigen Urteberri eguna (Yennayer)

jaiegun bihurtzea exijitzen dute.

ALJERIA

Herrialdean 10 milioi amazigera hiztun bizi dira, populazioaren laurdena. Gehienak Kabilian (Aljer hiriburutik ekialdera) bizi dira baina erdialdean, ekialdean eta hegoalde erraldoian ere badira.

Marokon bezala, denbora luzez ari dira eskubideak aldarrikatzen. Izan ere, Aljeriako Estatuak, arabiartasunean oinarrituta, ukatu egin die orain gutxira arte eskaerarik urriena ere. 2016an herrialdeko bigarren hizkuntza bezala onartu zuen Gobernuak eta handik bi urtera, 2018an, Urteberri eguna onartu zien. Baina iazko Hirak mugimenduaren protestetan parte hartzeagatik gogor zigortu ditu Aljerrek berbereak.

Dozenaka manifestari kartzelan daude manifestazioetan amazig ikurra eramateagatik.

LIBIA

Gaddafik gogor egin zuen berbereen aurka, komunitate kulturala zirenik ere onartzen ez zuelako.

Biztanleriaren %10 osatzen dute eta Tripolitik mendebalderantz dauden Nafusako mendietan bizi dira gehienak, baina hegoaldeko basamortuan ere badira.

Hizkuntzaren ofizialtasuna aldarrikatzen dute eta Parlamentuan dagokien pisua exijitzen dute.

Gaddafiren erregimena desagertzearekin batera, amazig ikurra ikusten da libiarrarekin batera, bakarrik gainera herri berbereetan.

Testuliburuak ere argitaratu dituzte amazig hizkuntzan baina oraingoz ez ditu onartu Tripoliko Gobernuoko Hezkuntza Ministerioak.

Parlamentuan zain jarraitzen duen Konstituzio proiektuaren arabera, Libiako komunitate desberdinek hitz egiten dituzten hizkuntzak, amazigera tartean, Libiako ondarearen parte gisa onartzen dira, baina arabierak hizkuntza ofizial bakar izaten jarraituko luke.

TUNISIA

Tunisian ez dago jakiterik berbereak zenbat diren, etnien edo hizkuntzan oinarritutako estatistikak debekatuta daudelako. Hegoaldeko hainbat eskualdetan ez ezik, gehienak Tunisia hiriburuan bizi dira.

Estatuak ez ditu onartzen komunitate bezala eta Konstituzioak arabiar hizkuntza eta erlijio musulmana baino ez ditu jasotzen.

Amazig kulturaren Tunisiako erakundearen (ATCA) presidentea den Jalloul Ghaki-ren esanetan, tunisiarren %50 jatorriz berbera da baina %1era ere ez dira iristen amazigeraren bertako dialektoaren (xelha) hiztunak.

Berbereak egoeraren jabe dira eta pauso txikiak eskatzen dituzte «Tunisiako herriak amazig kultura tunisiar identitatearen alde bat bezala onar dezan».

2011ko iraultzaren ostetik, komunikabideek eta gizarteak begiak zertxobait altxatu dituzte. Giza Eskubideen ministroak urte berri on opa zien 2017ko Yennayer egunean herrikide berbereei.



Siwi hizkuntzak bizirik jarraitu ahal izan du orain arte Siwako oasia Egiptoko eskualdeetatik urrutikoenean dagoelako. Gertuen duen hiria 300 kilometrorra dago eta lehen errepidea ez zen ireki 1984ra arte. Egun bide bakarra dago Mediterraneotik bertara iristeko. Milaka turista iristen dira urtero, baina orain gutxira arte bertakoak bertan gelditu izan dira. «Siwa siwarrantzat arrainarentzat ura bezala da. Ez zuten alde egingo munduko altxor handienaren truke ere», ziurtatu du Mehdi al-Howeitik, turismo bulegoaren arduradunak.

NAHASKETA ASIMETRIKOA


Gaur egun, ordea, desafio ugari ditu familia barnean transmititzen den hizkuntzak, arabierarekin bizikidetzatik hasita. Izan ere, zeharo aldatuz eta pobretuz doa amazigeraren dialekto hau beste hizkuntzekin kontaktuan.

«Antzina, gure gurasoek siwiz baino ez ziguten hitz egiten, ez geneukan inolako harremanik arabierarekin (...) baina egun gure hizkuntzak arabieraren gero eta eragin handiagoa du», ke-xu azaltzen da Ibrahim Mohamed, Haddadine tribuaren xekea.

Siwako biztanleen artean errespetu handia sortzen duen xekearen iritziz, oasiaren identitate amazigaren oinarria da siwi hizkuntza.

Volpi egiptologo italiarrak adibide bat jartzen du hizkuntzen arteko eragin horiei buruz, «Siwiak ez dauka 'mahai' esateko hitzik, berberek zoruan jaten zutelako eta ez zegoelako mahairik. Horrela, milaka hitz berri iritsi dira eta hizkuntza arabierarekin nahastu egin da».

«Nahaste honek antzinako hizkuntza desagertzera era-



mango du», ziur da. «Apurka-apurka, baina azkenean desagertu egingo da».

Soko hamarkadan elebitasuna hedatzeko konpromisoa hartu zuen Egiptoko erregimenak, hezkuntzan, komunikabideetan eta turismoan, baina ez du agindutakoa bete.

Egiptoko gutxiengoaren hizkuntzekin gertatzen den moduan, nubiarrekin hasita Sinai-ko beduinoetaraino eta kristau koptoak ahaztu gabe, siwia ez da eskolan erakusten. Lotsagarria da, Egiptoko eskola programetan atzerriko hizkuntzak irakasten diren heinean.

Siwako eskoletan soilik arabiera onartzen da, eta gero eta gazte gehiago joaten dira Egiptoko Mediterraneoko itsasertzeko hirietara unibertsitate ikasketak osatzera. Beraz, hizkuntza ofizial bakarrean hitz egitea beste aukerarik ez dute.

Siwi hizkuntzak bizirik jarraitu ahal izan du orain arte, Siwako oasia isolatuta egon delako. Gertuen duen hiria 300 kilometrorra dago eta lehen errepidea 1984ra arte ez zen eraiki

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) siwi hizkuntza arrisku bizian dagoela ohartarazi zuen 2008an. Unescok mehatxupearan dauden hizkuntzen Atlasean sartu du.

Aurreko orrialdean, ikasleak antzinako janzkerarekin. Lerro hauen gainean, saskigintzan eta oasiaren berreraikuntza lanak.

JALED DESOUKI-AFP



«Siwia galtzen ari da», deitoratu du Mehdi al-Howeitik. Eta ez bakarrik belaunaldi berriak unibertsitatera joaten direnean «beste batzuekin nahastu» eta bueltan adierazpen berriak dakartzatelako. «Sare sozialen bidez munduarekin komunikatzeko aukera bakarra arabiera erabiltzea dute», azaldu du. «Gazteen artean jada ez da entzuten 'kaptar jeirak' (eskerrik asko siwiz). Orain 'shukran' esaten dute (arabieraz), edo zuzenean 'thank you'. Antzinako hitzak ahazten ari dira», gaineratu du Howeitik.

ETORKIZUNIK GABEKO HIZKUNTZA

Abdo banastagilea da eta palmondo orriekin saskiak egiten ditu. 27 urte ditu eta arabierarekin nahasten du bere ama hizkuntza. Siwia mantentzea «inportantea bada ere, ez ditu aukerak eskaintzen».

«Siwatik kanpo lan egin nahi badut, siwiak ez dit ezertarako balio. Gainera, ez nuen Armadara joaterik izango arabieraz jakin ezean, ez zidatelako ulertuko», azaldu du.

Mohamed xekeak argi du «siwia eskoletan eman behar dela hizkuntzak iraungo badu» eta ez dela nahikoa haurrek eta nerabeek etxean eta jolasean erabiltzea.

Bitartean, 2008. urtean «Siwako Semeak» izeneko ekimen

bitxia sortu zen, bertako ondare kulturala babesteko asmoarekin.

Italiako eta Marokoko gobernuen kanpoko bi erakunderen (GKE) laguntzarekin, proiektu honen bidez amazigerazko abestiak, olerkiak eta esaera zaharrak kaleratu zituzten 2012an, siwira eta arabierara itzuliak (alfabeto arabiarrean).

Baina lan horiek, oasiko zaharren eta gazteen arteko urteetako elkarlanaren ondorioak, agortuta daude eta berrargitaratzeko dirurik ez dago, erakundearen presidenteordeak, Yahya Qenaoui-k, salatu duenez.

«Gehiago egin behar da gure ondarea babesteko. Nahiko genukeen %10era ere ez gara iristen (...) baliabide urriak ditugu eta ez dugu inolako dirulaguntzarik jasotzen», deitoratu du.

Gauzak horrela, eta Siwako turismo bulegoko zuzendariaren iritziz, hizkuntzak bizirik irautea ezinezkoa da, ez baitago behar beste ekimenik, publikoak nahiz pribatuak, oasiaren aberastasun immateriala babesteko, eta gazteek ez dutelako pizgarririk siwia erabiltzeko.

«Palmondoetara igotzea bezala da. Egun inork ez du igo nahi datilak hartzera, gogorra delako. Siwa aldatuz doa», ondorioztatu du Howeitik.



Saioa Aginako Lamarain
Psikoterapeuta

Distopiak

osasuna / harremanak / teknologia

Hogeigarren mendeko saiakeragile garrantzitsuenetako bat da **George Orwell**. Bere testurik garrantzitsuenak, batez ere, **faxismoaren aurkakoak dira**. “1984” eleberri ezaguna, idazlearen ondorioa da gizarte totalitarioei buruz. Bertan, hizkuntzaren manipulazioa, kontrol mentala eta botere abusua bezalako kontzeptuak erabiltzen ditu. George Orwellek irmoki uste zuen totalitarismoa eta hizkuntzaren iruzurkeria elkarri lotuta zeudela eta “1984” eleberrian maisuki azaltzen da hizkuntzaren eta boterearen artean dagoen lotura. Fikziozko lana den arren, errealitateari ezin hobeto aplikatzen zaio eta gaur egun ere indarrean dago. Beraz, hitza, halakotzat hartuta, botere eremua da, eta narratiba eratorriak manipulatzeko moduak izan daitezke. Hizkuntzaren bitartez desobediencia pentsamendu oro erabat blokeatu daitekeela proposatzen du Orwellek.

Mende berean, historian urte batzuk aurrerago, Erich Fromm psikoa-nalista eta filosofoa askatasunaren defendatzaile sutsua izan zen, eta mende bihurtu gintzaketan, gobernu autoritario berriei bide eman ziezaieketen mekanismoez ohartarazi zuen bere lanetan. “The Revolution of Hope” (1968) lanean, XXI. mendeko gizartea gero eta indibidualizatuagoa izango zela, gizatasun gutxiagokoa, aurreikusi zuen, eta teknologiaren mende egongo zela, mundua pixkanaka elkarreragin gutxiagoko eta isolamendu handiagoko eszenatoki batera bideratuz, non gizarte mekanizatu batean, gizabanakoa makineria tresna soil bat izango den. Gizakia teknologiaren esklabo ez bihurtzeko, gizarte gisa aurrera egin nahi badugu, arreta jarri behar dugu teknologia giza ongizatearen zerbitzura egon dadin, eta ez alderantziz.

Byung-chul Han Hego Korean jaio-tako filosofo eta idazle garaikide sonatua da. Bere hausnarketak hainbat gairi buruzkoak izan dira, baina ba-

tez ere teknologiari eta haren emaitza den kulturari buruzkoak. Byung-Chul Han-entzat, bere aurrendariak iragarri bezala, askatasuna ilusio handi bat besterik ez den aro batean gaude. Gaur egun nagusi dena «esklabotza baimendua» da. Adibidez, sare sozialetan itxuraz dagoen adierazpen askatasuna praktika bihurtu da, eta horrek aukera ematen du gu «zaintzeko». Botereak ez du inoren sekretuetan sartu edo infiltratu beharrik, berez eskaintzen baitizkiogu. Horrela, gizarte globalizatu honetan, mundu guztiak desberdina izan nahi du, mundu guztia berdina delako. Desio hori, hain zuzen ere, pertsonen pentsamendua zein homogeneoa den erakusten duen frogatzen da. Horren emaitza konformismo erradikala da. Jendeak otzan onartzen du denak bizi diren bezala bizitzea. Hau da, alferrik ekoiziz, alferrik erakutsiz eta denbora guztian garaile atera diren ereduen inguruan biratuz.

Informazioaren manipulazio eta kontrolaren eraginpean bizi gara. Mass mediak informazioa aldatzen duten alderdiak eta gobernuak izaten dituzte atzean, pertsonen irizietan eragiteko. Horregatik, informazio edo irakurketa orok gutxieneko gogoeta eskatzen du.

Depresio eta antsietate sintomak gero eta ageriagoak dira. Ziurtzat jotzen dugu gure ordenagailuak eta gainerako teknologia gure zerbitzura daudela. Honek apatiara eramaten gaitu gizarte bezala, arrazoitzeko eta iraultzak hasteko gaitasuna zalantzan jarriz. Ematen du aurretik irudikatutako etorkizun distopikoak oraina bihurtu direla; nolakoa da guretzat nahi dugun etorkizuna? •



George Orwellek «1984» eleberrian jasotakoak betetzen ari ote dira? GAUR8

3 BEGIRADA:

saioaaginako@gmail.com

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Omikronek ageriago utzi duen errealitatea

Beharbada hortxe arituko dira oraintxe Sabin Etxeko edo Ajuria Eneko komunikazio taldeak hurrengo kanpainatxoak prestatzen. Oporren ostean, *tournée* berri bat egiteko hedabideetatik, bereziki EITBko kate guztietatik, pandemiaren kudeaketaren izugarritzko gabeziek eta jendearen ezinegonak sortutako giroari aurre egiteko.

Ez luke inor harrutuko orain arteko ildoari eustek, erruak besteen bizkar gainera botaz, egindako akatsak aitortu gabe. Orain arteko esperientziak ez du besterik iragartzen. Ez litzateke harriztekoa izango burukideren batek ETA ere aipatzea arretagunea lekuz aldatzeko edo, gutxienez, eztabaida kakazteko. Film hori ikusi dugu azken bi urteotan behin baino gehiagotan.

Gaur egungoa ez da erraz kudea daitekeen egoera. Horrenbeste badaki edonork. Eta kalean suma daitekeen haserrea ez da arazo gainditzea lortzen ez delako, herritarrek hainbat neurri, egoera eta adierazpen zentzugabetzat hartzen dituztelako baizik. Olatua izugarritzkoa da, eta beste leku batzuetan ere ezin aurre egin dabilta. Horrenbeste badakigu, baina gutxieneko zintzotasuna beharko litzateke hartu diren neurrien eta egin den diskurtsoaren gainean.

HARTUTAKO NEURRIEN ESANAHIA

Omikron oso kutsakorra da, eta horrek, adibidez, agerian utzi du Urkulluren neurri izarra, Sanchezek deituriko bileran aurkeztu zuena: maskara kanpoaldean derrigorrezko izatea. Paradoxikoki, esate baterako, konfinamendu gotorrean hainbeste aipatu zen telelanaren erreferentzia lausotu da, nahiz eta badirudien egungo egoeran indartu beharreko neurria litzatekeela. Adibide bat baino ez, baina esan daiteke zenbait gai garrantzitsu desagerrarazi nahi direla. Hain zuzen, egiturazko aldaketak edo inbertsioak ekartzen dituzte-

nak. Kalean maskara derrigorrezko bilakatzeko ez da ezer behar, dekretu bat, besterik ez. Leku itxien segurtasuna handitzeko (garraioa, ikastetxeak, lantokiak...) neurri zehatzek zerbait gehiago beharko lukete, erabaki sendoak eta baliabideak. Errazago da, bistan da, haurrak eskolarteko kirolak gabe uztea.

Oro har, azken urteetan osasun sistemak pairatu duen txirotzeak eta, zehatzago, osasun larrialdiari amaiera eman zitzaionean hainbat baliabide indargabetzeak hausnarketa sakonagoa merezi dute.

Agintariak gaindituta egotea ulergarria da; erabakiak hori estaltzeko edo mozorrotzeko hartzea, ordea, ez, eta horrek denak, gainera, ondorio kaltegarriak izan ditzake pandemiari aurre egiteko ondo egindakoak ere kalte ditzakeelako. Sinesgarritasuna garrantzitsua da

Agintariak gaindituta egotea ulergarria da; erabakiak hori mozorrotzeko hartzea, ordea, ez, eta horrek denak, gainera, ondorio kaltegarriak izan ditzake

beti, baina are garrantzitsuagoa guztion bizitza hankaz gora jarri duen horrelako krisi batean.

Eta horregatik komeni da alferrikako polemikarik ez piztea, datuak ondo maneiatzea eta informazioa txukun kudeatzea, alarmismoari edo utzikeriari bide eman gabe. Adibide bat jartzearren: Euskal Herrian, bereziki Hego Euskal Herrian, txertaketa masiboa izan da, eta covid pasaportearekin sortutako polemikak ez du ezer onik ekarri.

Finean, oso gogoan izan behar da pandemiaren hasieran, txertoa ez zegoenean, biztanleria osoak etxean konfinatua egon behar izan zuela hilotzak gehiago ez pilatzeko, eta txertorik gabe azken urtea izugarria zatekeela. Horrek denak ardura eta apaltasuna eskatzen digu guztioi. •



MINAREN ETA BIZITZAREN ORBAINAK

Amagoia Mujika Telleria

Izan Iñurri elkartearen sare bat da, minbiziak sortzen dituen minak, beldurrak, kezka taldean kulunkatzen dituen zabua. Bularreko minbiziaren emakume talde bat biluztu egin da 2022. urteari egutegi bat paratzeko, minbiziaren «kaka bola handi horri» geruzak kentzeko eta bularreko gorpuzak ez daitezela ikusezin izan.

Sei emakume mahai baten bueltan. Ilerik gabe batzuk, ile motzarekin besteak, bular bakarrarekin erdiak, etzidamu izango duen ebakuntza buruan duela beste bat... Minbiziaren beren azalean edo maite dituztenen eza egutegiaren sei emakume.

«Izan Iñurriren bidez eza egutegi dugu elkar. Garrantzitsua da hori. Julenek (Illarramendi), Mirenek (Cuerdo) eta Iratik (Jauregi) elkartearen egiten duten lanari esker sortzen dira gure proiektuak. Haien lanik gabe gu ez ginatke hemen egongo. Hori esanda, Izan Iñurri elkarteak minbiziaren inguruan hitz egin nahi du baina oso modu maitagarrian, gozoan,

Goiko argazkian, ezkerretik eskuinera, Olatz Mercader, Julene Illarramendi, Elenita Guinea, Maite Martin, Sandra Barkaiztegi eta Lia Ramos.

Gorka RUBIO | FOKU

Alboko orrialdean, Izan Iñurri elkarteak argitaratu duen egutegiko zenbait irudi. Iratxe ETXEANDIA

naturalean. Ez du erdigunean gaixotasuna jartzen, pertsonak baizik. Ikuspuntu horri esker, abiapuntu horri esker, edozein proiektu aurrera eramateko gai gara maitasunez, laguntasunez, naturaltasunez, irribarrez...», hasi du azalpena Sandra Barkaiztegi.

Eta nola indar kolektibo horrek edozer egiteko grina ematen dien, hasi berri den urteari egutegi berezi bat paratu diote. Bertan ageri dira minbiziaren sei emakume, biluzik, orbainak bistan. «Ez gaude gure gorpuzaz harro, ez dugu gure gorpuzta erakutsi nahi, baina batez ere ez dugu ikusezina izan nahi. Hori da kontua. Eta gorpuz guztiak erakutsi nahi ditugu», zehaztu dute.

Normalean ikusten ez diren gorpuzak erakutsi, errealitate gordin bat bistaratzeko. Bularreko minbiziaren eta mastektomia egin dieten emakume gehienek (%86 inguru) ez dute bularreko berregiteko ebakuntzarik egiten. Gehiago zabal batek bular bakarrare-

kin bizitzeko hautua egiten du. Baina, non daude emakume horiek? Galdera horren oihartzuna da argitaratu duten egutegia.

Elenita Guineak bularreko minbiziaren eta bular bakarra. Pandemia betean diagnostikatu zioten bularreko minbiziaren, kostata. «Ni pandemian diagnostikatu naute eta ez da erraza izan. 2021eko uztaila amaieran koskor txiki bat igarri nuen bularrean. Sekulako lantza eman nuen anbulatorioan, ez baitzegoen aurrez aurreko arretarik. Hiru egunen buruan erizain batek deituko zidala esan zidaten. Telefonoz azaldu nion gertatzen zitzaidana eta hiru egunen buruan medikuak deituko zidala esan zidan. Bitartean, gaizki, urduri. Koskorra handitzen ari zela sumatzen nuen. Erabaki nuen osasungintza pribatura joatea, mamografia bat egitera. Eta justu egun horretan Osakidetza eskutitza jaso nuen, bularreko minbiziaren prebenitzeko programaren hitzorduekin, 50 urtetik gorakoa naizelako.

Zortzi hilabeteko atzerapenarekin zertorren eskutitza, baina justu egun horretan jaso nuen eta eskerrak. Mamografia horretan ikusi zuten minbizia nuela. Diagnostikoa jakitean lasaitua hartu nuen, tratatzen eta sendatzen hasiko zirelako. Pandemiarekin egoera oso latza da, inork ez dizulako kasurik egiten eta ziurgabetasun hori oso krudela da. Ez da profesionalen errua, pandemiarekin agerian geratu dira lehendik ere bazetozen osasun sistemaren akatsak eta zuloak».

Guineak hasieratik garbi izan du bere hautua. «Nik hasieratik oso garbi izan dut ez nuela bularra berregingo, ez nuela protesirik jarriko. Eta garrantzitsua iruditzen zait jendartea pixka bat heztea. Gaur egun arraroa egiten da gorputz asimetrikoa izatea, bular bakarra izatea. Eta gorputz horiek normalizatzeari bada egutegiaren helburua. Emakume asko gaude bular bakarrarekin eta jendartearen begirada ohitu beharra dago, bai hondartzan eta bai toki guztietan. Garrantzitsua iruditzen zait gureak bezalako gorputzak erakustea. Gure egoera berean dauden emakumeek ez dezatela une batzuetan guk sentitu dugun bakardadea sentitu. Hori da egutegiaren helburua. Ikus dezatela hemen gaudela, existitzen garela bular bakarra daukagun emakumeak».

MINBIZIA ETA PRESIO ESTETIKOA

Olatz Mercader zarauztarrak bularreko minbizia izan du. «Minbizia den kaka bola handi honi zenbat eta geruza gehiago kendu, hobeto. Guk egutegi hau egiteak beste emakume batzuei lagundu badieziaieke, estereotipo estu batzuen pisua ken badieziaieke, niretzat aurrerapauso handia da». Izan ere, bularreko minbiziak badu motxila pitsutsua, gaixotasunaren laztasunari jendartean hain astunak diren agindu estetikoak gehitu behar baitzaizkio.


Maite Martini bularreko minbizia diagnostikatu zioten pandemiaren itxialdi bete-betean. Noraezean sentitu zen, osasungintza publikoa hankazgora zegoen, eta alor pribatutik eta bere poltsikotik ordainduta iritsi zen diagnostikoraino. Kimioterapia har-



tzen ari da orain. «Oso prozesu gogorra pasatu eta gero, badirudi badagoe-la presio moduko bat kendutako bularra berregiteko. Medikuek esaten dizu bularra prest utzi dizula ebakuntzarako, berregiteko. Dena horretara bideratuta dago. Horrelako prozesu gogorra pasatu eta gero, ez daukazu batere gogorik beste anestesia baterako, beste ebakuntza baterako... hori da gorputzak eskatzen dizun azken gauza. Gogoan daukat oraindik nire bularrarekin zer gertatuko zen jakin aurretik dagoeneko askok galdetzen zidatela: bularra kenduko dizute? Batzuek borondate onez, beste batzuek ezjakintasunetik... Nik une honetan ez dakit zer gertatuko den nire bularrarekin. Oraingo zati bat kendu didate, baina ez dakit nolako garapena izango du dan. Oraintxe nire kezka bakarra bizirautea da, bizitzea. Plazaratu nahi dugun mezua hori da, bular bakarrarekin bizitzea aukera bat dela, besteak bezain zilegia».

Mercaderrek hartu dio lekukoa solasaldian. «Minbiziaren aurrean ez dago errezeta magikorik, erremintak daude. Eta bakoitzak erreminta kutxa horretatik bere prozesua ahalik ondoen eramaten lagunduko diotenak hartu behar ditu. Baina bere prozesua da, norberak berea daukalako. Bular prote-siak, ileordeak, mikropigmentazioak... erreminta horiek denak hor daude. Baina badaude beste erreminta batzuk ezkutuago daudenak. Niri pertsonalki asko lagundu didate erreminta horiek eta bistaratu egin nahi ditugu. Hori da egutegiaren helburua».

Martinek segitu du, «presioa kendu behar dugu, norberak bere prozesua nahi duen edo ahal duen bezala bizi dezala. Badago bere burua ilerik gabe ikusi ezin duen jendea. Dutzatik atera eta ispilura begiratzeko buruan toalla bat jartzen duena. Badago mastektomiaren orbaina ikusi ezin duen jendea, bere gorputzari begiratu ezin diona. Norberak erabaki behar du bere prozesua nola eraman eta mezu hori zabaldu nahi dugu».

Datuek garbi erakusten dutenez, Mastektomia egiten duten emakume





gehienek bularrrik gabe bizitzea erabakitzen dute. Hala ere, osasun sistemen menu nagusia bularraren berregitera bideratuta dago. Aldiz, ez da inolako baliabiderik edo lanketarik proposatzen bularrrik gabe bizitzea erabakitzen duten eta gehiengoaren diren emakume horien bizitza samurtzeko.

«Nire bularrak plazer handia eman dit. Alabei titia eman diet urte askotan. Protesi batek ez dizkit sentsazio horiek bueltatuko. Gustatuko litzaidake sistemak protesi bat jarri nahi duenarentzat aukerak eskaintzen dituen bezala, bular bakarrarekin geratzea erabakitzen dugunontzat ere aukerak izatea. Orban eder bat izaten lagun dezala eta psikologikoki laguntza eskain dezalazure gorputz berria maitatzen ikasteko», bota du iritzia Olatz Mercaderrek.

PERTSONA OSASUNTSUAREN MOZORROA

Emakume guztien bizipenak ez dira parekoak. Minbiziak bizitzaren zein fasetan harrapatzen zaituen ere esanguratsua da. «Nire kasuan, hasieran bularzati bat kendu zidaten. Gero beste bat eta hirugarren ebakuntza batean mastektomia egin zidaten. Hiru ebakuntza eta espero ez nuen albistea; kimioterapia hartu behar duzu. Eta gero galdetu

zidaten ea bularra berregiteko ebakuntza nahi nuen. Bi kirurgia nagusi dira, horrek kimioa atzeratu dezake... sekulako bonbardaketa da, asimilatzeke zaila. Orduan nik erabaki nuen sendatu egin nahi nuela. Osasunarentzat zer da beharrezkoa? Bularra kentzea eta kimioterapia hartzea. Ba horixe egitea erabaki nuen», jarraitu du Mercaderrek.

Lia Ramos Zarautzen bizi da eta 26 urte dauka. Ebakuntza baten bezperatan partekatu ditu bere sentipenak GAUR8rekin. 2021eko ekainean diagnostikatu zioten minbizia. «Ingurukoek minbizia neukala jakin zutenean, segituan hasi ziren hango eta hemengo zentro estetikoak aholkatzen, ileorde bikainak zeudela esaten... Eta ni harrituta. Nik ez dut nahi ezer gomendatzea ilea eroriko zaidalako edo zurbil egongo naizelako. Nik tratamenduak eragiten didan tripako min jasanezina samurtuko didan zerbait aholkatzea nahi dut».

Ilerik eta bekainik gabe dago Ramos. «Sekulakoa iruditzen zait horrelako inposaketa estetikoak izatea. Kimioterapia hartzea joaten naiz eta bertan minbizia duen jende gaztearekin egiten dut topo. Badirudi ez dutela minbizia, oso oso guapa daude, orraztuta, makillatuta... Badirudi hori dela garrantzitsua.

Lerro hauen gainean eta alboko orrialdean, Izan Iñurri elkarteak argitaratu duen egutegiko zenbait irudi.

Iratxe ETXEANDIA

Gaixo zaude, baina pertsona osasuntsuaren mozorroa jantzi behar duzu».

Gogoeta, sentipen, beldur eta gazi-gozo horiek denak partekatzen dituzte Izan Iñurri elkartearen bueltan dabilzan emakumeek eta 2022 honetarako egutegiko protagonista bihurtzea erabaki dute. Zein ausartak. «Nire gorputz hau habitatzeagatik, gorputz honetan bizitzeagatik, ez naiz ausarta. Ni une guztietan daukadanarekin bizi naiz», zehaztu du zorrotz Olatz Mercaderrek.

Sandra Barkaiztegi jarraitu du. «Hemen gauden emakumeok erabaki dugu, bizipen kolektiboak eman digun indarretik, gure gorputzak erakustea denon izenean. Nire bizitzan zehar ondoan izan ditudan pertsona guztiek –lagunak, senideak, elkartearen ezagutu ditudanak, ulertu nautenak, ulertu ez nautenak, kalean begira geratu zaizkidanak...– beren parte izan dute nire erabakian. Horiek denek indarra eman didate nire gorputzaren atzean maitasun ikaragarria dagoela ikusteko. Nik egutegi honetan agertzen diren gorputzen atzean hori ikusten dut, maitasuna, norberak bere buruari emandakoa eta ingurukoek emandakoa».

Ados, ez omen dira ausartak, indartsu sentitzen direnak baizik. Eta behin ze-



haztapenak egiten hasita, askotan entzuten den esamoldea atera da mahaira: «Minbiziaren aurka borrokatu behar duzu». Mercader hasi da segidan. «Horrek sekulako jenio txarra sortzen dit. Gu erietxera joaten gara eta besoa jartzen dugu. Ez dugu beste borrokarik egiten. Nire borroka latzena brokoli gordina jatea izan da, nutrizionistak ona zela esan zidalako. Badago diskurtso epiko bat minbiziaren kontra borrokatzeaz hitz egiten duena. Gu zientziak sendatzen gaitu eta baita beste tratamendu osagarri batzuek ere. Guk besoa jartzen dugu, kimioa edo radioa edo dena delakoa ematen digute eta horrek funtzionatuko duela espero dugu. Baina borrokaren inguruko diskurtso epiko horiek aldatu egin behar dira. Bidean geratu diren lagun asko ditugu, guk dugun bizitzeko gogo bera izan dutenak, aurrera egiteko grina bera, sendatzeko erreminta berak eta, zoritxarrez, lagun horientzat ez dira nahikoak izan. Hemen ez dago borrokarik. Norberak bere burua zaindu behar du eta elkar zaindu behar dugu. Ez dago besterik».

Gogoetarekin jarraitu du Mercaderrek. «Nik beti esaten dut minbizia paradoxaz beteta dagoela. Ni beti oso pertxenta izan naiz, itxura asko zaindu

Elena Guinea, Olatz Mercader, Maite Martin, Aintzane Artola, Lia Ramos eta Sandra Barkaiztegi Izan Iñurri elkarteko kide dira. Guztiek minbizia beren azalean ezagutu dute eta egutegirako modelo lanak egin dituzte.
Iratxe ETXEANDIA

duena eta konplexu tuntunak ere banituen. Gaixo zaudenean, zure burua estereotipo normatibo horietatik urrun ikusten duzunean, inoiz baino ahulago zaudenean, paradoxikoki, inoiz baino gehiago maite duzu zure burua. Hori niretzako sekulakoa da. Iraganeko Olatz besarkatzen dut eta mozola bat zela esaten diot askotan».

EGUTEGIAREN HARRERA

Izan Iñurri elkarteko egutegiak sekulako harrera izan du. Dagoeneko bigarren tirada ere egin behar izan dute. Jende asko gerturatu zaie, ezagun zein ezezagun, proiektua gustatu zaiela esatera eta indarra ematera. Baina, etxe-koek, gertukoek, nola hartu dute?

«Ni Zarautzen bizi naiz bikotekidearekin eta nire ama Nikaraguan dago. Duela hiru urte etorri nintzen Euskal Herrira. Amari egutegiaren proiektuaren berri eman nionean asko gustatu zitzaion eta nire bikotekideari berdin. Nire aitagarrebak ere minbizia dauka eta gustatu zitzaion proiektua. Nire amagarrebaren kasuan, nahiz eta proiektua gustatu, ezin ditu ikusi egutegiko argazkiak. Argazki horiek ikustea gogorra egiten zaiola esaten du. Nik uste dut egutegia lagungarria izan daitekeela bularreko minbizia sufritu duen eta bularra berregin edo ez erabaki ezinean dabilenarentzat. Akaso presio sozialak asko pisatzen dio eta egutegi honek hori arintzen lagun diezaioke. Beste emakume batzuk egoera horretan beren gorputza erakusten ikustea oso argigarria izan daiteke», hasi da Lia Ramos.

Amak Nikaragutatik, urrunetik, jarraitzen du alabaren minbizia. «Nire ama Nikaraguan dago eta lasai dagoela uste dut. Berak badaki Nikaraguan minbizi bat izatea heriotza kondena bat dela ia. Horregatik dago lasai, hemen diagnostikatu didatelako eta badakielako osasun baliabide egokiak ditudala eskura». Eta asko mimatzen duen sare bat ere badauka Izan Iñurriren bueltan, bistakoa da. «Adibidez, ni bakarrik ez nintzateke kalean burusoil ibiltzeko gai izango, baina nire lagun hauekin bai. Emakume hauek ondoan ditudanean edozertarako gai naiz; kalean biluzik ibiltzeko gai ere banaiz emakume hauek ondoan baldin baditut. Behin ausartu nintzen bakarrik nengoela kaletik soildutako burua age-

«Nire gorputz hau habitatzeagatik, gorputz honetan bizitzeagatik, ez naiz ausarta. Ni une guztietan daukadanarekin bizi naiz», esan du Mercaderrek. Egutegian beren gorputzak erakutsi dituzte «ikusezin ez izateko»

«Minbizia neukala jakin zutenean, segituan hasi ziren batzuk ileordeak aholkatzen. Ez dut nahi ezer aholkatzea ilea eroriko zaidalako, tratamenduak eragiten didan tripako mina samurtuko didan zerbait aholkatzea nahi dut»



rian eramaten eta oso gaizki sentitu nintzen jende guztia begira geratzen zitzaidalako».

Olatz Mercaderrek hartu du hitza. «Harrapatzen zaituen bizitzaren fasearen arabera, desberdin bizi duzu. Ni harrapatu nau 8 eta 11 urteko bi alabekin eta erabaki nuen hasieratik egia esango niela. Familian aukera ona izan da dena mahai gainean jartzeko, elkarrekin hazteko eta beldurak partekatzeke. Eta konturatu gara bizitza 'guai' bat izateko beharrezkoa dela elkarrizketa oso deserosoak izatea».

IZAN IÑURRI, SAREA ETA MAGALA

Minbizia prozesu latza eta gogorra da. Bakoitzak bere etxean bizi dezake, bide malkartsua bakarrik egin. «Baina ez dezagun ahaztu erabat zilegia dela bide hori modu kolektiboan egitea eta ez dezagun ahaztu taldean jokatzeko dugunean sekulako indarra daukagula. Batzuek besteei eman diezaiogegun babesa sekulakoa da. Finean, zalantzak, beldurak, presioak, estereotipoak, desparekotasunak zeharkatzen gaituzte gu guztiok eta kolektiboki elkarri indar handia eman diezaiogegu», bota du Mercaderrek.

Izan Iñurri elkarte hori da, babesa eta patxada eskaini nahi dituen sarea. Lasarte-Orian sortu zen duela bi urte eta erdi. Julene Illarramendik bultzatu zuen sorrera. «Duela lau urte nire ama minbiziaren ondorioz hil zen, hamar urteko prozesu luze baten ondoren. Ez nekien nola eta zer, baina ekarpen bat egiteko gogoia neukan barruan. Lagun batzuekin elkartu eta zerbait egitea pentsatu genuen. Sare sozialetan nire istorioa kontatu nuen eta Miren Cuerdo idatzi zidan. Elkartu eta ekimen desberdinak bultzatzen hasi ginen, minbiziaren gaia bistartzeko. Guk ez daukagu minbizia eta beti saiatu gara

protagonismoa ematen minbizia daukaten pertsoneri».

Ama hil ondoren Illarramendik zeukan «kontatzeko beharrak» piztu zuen proiektua, beraz. «Nire istorioak eta bizipenak beste batzuekin partekatzeke beharra nuen. Horrek bultzatu ninduen. Finean, Izan Iñurriren funtsa sare bat sortzea da. Nik hasieratik ikusten nuen sarearen garrantzia. Nik askatzeko beharra neukan. Nire amaren prozesuan zehar gauza asko ikusi nituen; tabuak, bular bakarreko emakumeen ikusezintasuna, ezjakintasuna... horiei bidea emateko behar handia sentitzen nuen».

«Elkartearen bitartez jasotzen dugun akonpainamendua oso garrantzitsua da, gaur egun osasun sistemak eskaintzen ez duena. Minbiziari lotuta hainbat egoera sortzen dira; fisikoak, emozionalak, agian inork azaltzen ez dizkizunak»

«Sintoma pila bat normalizatzen laguntzen dizu egoera partekatzeak. Sintoma txiki bat mundu bat bihurtzen zaizu, kezka handi bat. Kezka hori arintzen laguntzen dizu egoera beretik pasatzen ari direnekin hitz egiteak»

Minbiziaren inguruko elkarte da eta laguntza ez-profesionala eskaintzen du. «Gu ez gara profesionalak edo adituak. Minbizia gertutik ezagutzen dugu eta gure bizipenak partekatzen ditugu. Eta, batez ere, besteek esateko dutena entzuten dugu», esan du Illarramendik.

«Julenek beti kentzen dio garrantzia berak egiten duenari, baina guretzat oso garrantzitsua da, dena josten duen haria baita. Gure artean modu organikoan oso harreman polita sortu da. Ekimen txikien bitartez elkar ezagutzen joan gara, bola gero eta handiagoa egiten joan da eta oso-oso harreman polita egin dugu. Elkartearen bitartez jasotzen dugun akonpainamendua oso garrantzitsua da, gaur egun osasun sistemak eskaintzen ez duena. Minbiziari lotuta hainbat egoera sortzen dira; fisikoak, emozionalak, agian inork azaltzen ez dizkizunak... minbiziaren prozesuan badira egunak indarrrik gabe sentitzen zarenak, lur azpian sartu eta geldirik egon nahiko zenukeenak. Horrela zaudenean zure egoera bera pasatu duten edo pasatzen ari diren pertsonak daudela jakitea, ibili behar duzun bide bat dela jakitea, lasaigarria da. Gertatzen ari zaizkizun gauzak normalak direla eta beste batzuek ere sufritu dituztela jakiteak ez dizu sufrimendua edo mina kentzen, baina lasaitu egiten zaitu», esan du Mercaderrek.

«Sintoma pila bat normalizatzen laguntzen dizu egoera partekatzeak. Sintoma txiki bat mundu bat bihurtzen zaizu, kezka handi bat. Adibidez, ni kimioa hartzen ari naiz. Batzuetan eskuak sutan sentitzen ditut, sekulako azkura, ezin aguantatu. Azakalak belten zaizkit, gorputz adarrak lokartu... normala da beldurtzea, ez dakizu gertatzen zaizuna normala ote den. Whatsapp taldea dugu eta hor aipatu nuen nire kezka. Denen artean lagundu zidaten, haiei ere gertatu zitzaiela, lasai egoteko, aholkuak eman zizkidaten... Eskuak sutan izaten jarraitu nuen, baina askoz lasaiago. Egund horretako kezka hori arintzen laguntzen dizu egoera beretik pasatzen ari direnekin hitz egiteak», bukatu du Martinek.



PANTAILA TXIKIAN

Animazioa ez da soilik haurren kontua

Itxura eder horren azpian, gizarte kritika bortitzak plazaratzeko erabili diren sormen lan paregabeak, eta askorentzat guztiz ezezagunak direnak. Ez naiz hasiko film gomendioetan sakontzen, telesailetan soilik zentratuko naizelako, baina ezinbestekoak iruditzen zaizkidan animazio lan hauek go-raipatu nahi nizkizuke, lerro hauek idazten ari naizen bitartean, boteprontoan burura etorri zaizkidan lehenengoak: “Mary and Max”, “Arrugas”, “Persepolis”, “Waltz with Bashir”, “Another Day of Life”, “Anomalisa” edo “J’ai perdu mon corps” adibidez. Bakardadea, osasun mentala, bidegabekeria, zahartzeak dakarren guztia, nortasunari buruzko hausnarketa... gai potolo horiek topatuko dituzue izenburu horien muinean.

Zinemaren sorrera baino zaharragoa da mugimenduaren ilusioa marrazki batzuen bidez irudikatzeko ideia eta, batez ere, horien bidez mezuak zabaltzeko nahia. Historialari batzuek historiaurrekoak direla diote, labar-pinturen bidez mugimendua adierazten saiatzen baitziren. Ondorengo beste aurkikuntza batzuek, Egipton eta Grezian esaterako, beren artean mugimenduaren fase ezberdinak irudikatzeko joera hori berresten dute.

Hemen doa azken urteotan helduentzako animaziozko telesailen artean ezinbestekoak iruditzen zaizkidan lanak. “The Simpsons”, “South Park”,

2021. urtea joan berri zaigun honetan, ikus-entzunezkoen errepasso orokorra egitea gustuko izaten dut. Era guztietako proposamenak egon dira telesail, film zein dokumentalen arloan, baina deigarria egin zait azken boladan animazioak hartu duen pisua eta garrantzia. Animazioa, gezurra dirudien arren, oraindik haurrentzako generotzat katalogatzen du jendeak, kontziente izan gabe helduentzako lan ikaragarriak topatu daitezkeela.



Gaizka Izagirre Brosa

“Futurama” edo “Family Guy” bezalako izenburuak kanpo utzi ditut sobera ezagunak direlako, eta baita animea ere.

Strappare lungo i bordiment

NETFLIX | 6 atal

Zerocalcare komikigile italiarrak sorturiko animaziozko telesail zoragarria da honakoa. Erritmo bizikoa, bizitzari eta egunerokotasunari buruzko bakarrizketen bilduma txundigarria iruditu zait. Telesaila jada ikusi baduzu, osagarri modura jakin Farmazia Beltza argitaletxeak euskarara itzuli zuela “Macerie Prime” komikia bi liburukitan: “Honda muinean” (2018) eta “Honda muinean 2”, 6 hilabete geroago (2019).

Komikigilearen bizipenetan oinarritzen den helduentzako animaziozko telesaila da. Erromako marrazkilari gazte bat, gizarte kontzientzia oso sakonekoa, eta armadilo erraldoi bat kontzientziatzat duena ongi irakurri duzu, bai-, tartean pertsonaia desberdinak sartzen diren bitartean, bere bizitza ibilbideaz eta maitasunaz hausnartzen ari da hiritik kanpo bidaiatzen ari den bitartean. Animazioa, mezu garrantzitsuak zabaltzeko erreminta oso eraginkorra izan daitekeela frogatzen duen telesaila da. Umorea helduleku gisa erabiliz ekoizpen oso irudimentsua izateaz gain, erabat lur jota utzi nauen amaiera horren bidez, beharrezkoa den

mezu bortitza plazaratzen duelako. Guztia ez baita barea, telesailak hunkiberatasunerako tartea ere eskaintzen duelako, urre hutsa den gogoe-ta sorta batekin. Maisuki eta oso era originalean belaunaldi jakin baten erretratu oso zehatz eta gordina egin duela us-te dut. Animazio estilo aldetik jariatzen duen sinpletasun horrek mezu nagusiari garrantzi handia ematen laguntzen dio, eta gidoia edozein pertsona identifikatuta sentitzeko moduko egoerez beteta dago, umore oso garaikidea eta narrazio azkarra txertatuz.

Arcane: League of Legends

NETFLIX | 7 atal

Oharra: ez dut LOL (“League of Legends”) bideo jokoa ezagutzen eta mundu hori zeharo arrotza da niretzat. Are gehiago, esango nuke ez zaidala baterre gustatzen eta ez dela baterre erakargarria niretzat. Ulertuko duzu, beraz, “League of Legends” bideo jokoa egokitzapena zela irakurri nuenean «gutziz paso» esan nuela. Netflix plataformara beste telesail bat ikustera sartzen nintzen bakoitzean ordea, eta algoritmo madarikatuak hasierako pantailan animaziozko telesail honen irudiak jartzen zizkidan une oro, txundituta geratzen nintzen. Irudiak enegarren aldiz ikusi nituenean, aukera bat ematea erabaki nuen, eta eskerak! Eskerrak diot, animaziozko ekoizpen hau bisualki izugarria iruditu zaidalako, oso entretenigarria, erritmo bizikoa, aparteko soinu bandaduna eta narratiboki espero ez nituen elementu ugari oparitu dizkidalako. Ahaztu bideo joko baten egokitzapena dela, ani-



maziozko proposamenak gus-tuko badituzu zalantzarik ez izan eta murgildu unibertso be-rezi eta handi –oso-oso handi–honetan, zin dagizut-eta ez za-rela damutuko.

Invincible

AMAZON | 8 atal

“The Walking Dead”-en egilearen (Robert Kirkman) komiki batean oinarritutako telesail berriaren etiketapean iritsi zen Amazon plataformara, eta horrek bazuen bere arriskua.

Idazle estatubatuarrek Cory Walker marrazkilariarekin batera 2002an sortu zuen tinta eta paperezko kontakizun honek 17 urteko Mark Grayson superheroi gaztea du protagonista. Ekintzaren animazioa arina eta erakargarria da, bisualki oso boteretsua, baina zerbaitek definitzen badu tonuen eta generoen arteko oreka da. Oro har, esan liteke aholkurik onena dela, zalantzati dagoenarentzat, denbora bat hartzea lehen atala osorik ikusteko. Bilbeari buruzko ezer irakurri gabe, ezta traile-rra ikusi gabe ere. 47 minutu horien amaieran interesa mantentzen bada, ziurrenik asko gozatuko duzu ekoizpen honekin; horrela ez bada, utzi, agian ez baita zuretzat eginiko telesaila.

Undone

AMAZON | 8 atal

Ez du parekorik harribitxi honek. Rotoskopia teknikarekin egin, hau da, irudien gainean eraikitako marrazkiekin. Neska gazte baten istorioa kontatzen da, istripu baten ondorioz denbora ohikoa ez den moduan hautematen ha-

siko dena. Trama ia perfekzio-raino harilkatua dago, eta pertsonaiek hain elkarrizketa errealistak eta zintzoak dituzte, animazioa izan arren, bizitza bera baino burutsuagoak diruditela. Ikusle gisa, lehenengo atalean animazioa zergatik aukeratu duten zalan-tzan jartzen badugu ere, behin aitaren irudia sartzen denean guztiz justifikatuta geratzen da. Ekoizpenari giro propioa emateaz gain, nortasun handiko agertoki eta efektu bisual oso zehatzetan mugitzeko aukera ematen duelako. Depresio eta gaixotasun mentalaren gaia ma-haigaineratzen duen bitartean, drama intimoa, thriller psikologikoa eta naturaz gaindiko elementuak dituen telesail aparta.


Bojack Horseman

NETFLIX | 6 denboraldi

Lehen denboraldiak ez publikoaren eta ez kritikarengan inolako eraginik izan ez zuen arren, ondorengo denboraldiek klasiko berri baten aurrean geundela erakutsi zuten, ez bakarrik animaziozko telesailena, baita telebistaren historiarena ere.

Zaila da oso hitz gutxitan telesail honen mamia laburbiltzea. Zaldi antropomorfiko bati buruzko istorioa dela esango dizut. Laurogeita hamarreko hamarkadan, *sitcom* kaskar baten protagonista izan zena, baina gaur egun industriaren jostailu hautsi bihurtutakoa, eta bere etxean mozkortzen eta Todd psikologikoki torturatzen ematen du eguna.

Telesail honen alderdirik zoragarriena Bojack hazi egiten dela da. Hau da, anima-



ziozko ekoizpenen ezaugarri nagusietako bat izaten da film edo telesail osoan zehar pertsonaiak ia beti modu berean marrazten direla, baina Bojack aldatu egiten da, bai fisikoki, baita emozionalki ere. Gure kultura popularraren filosofia eta egia deserosoen nahasketa perfektua ere bada, eta atal bakoitzak ikuslea bere bizimodua zalantzan jartzera eramaten du. Alde batetik, bakoitza bere ekintzen erantzule dela baieztatzen duelako, baina, bestetik, bizitzak ez duela inolako zentzurik. Ezinbestekoa.

Rick and Morty

NETFLIX eta HBOMAX | 4 denboraldi

Beste klasiko bat. Rick zientifikoaren eta bere biloba Mortyren abenturak jarraitzen ditu: bidaia espazial intergalaktikoa egiten dituzte. Dan Harmonek, *Community* telesailaren sortzaileak, telesail fresko, dibertigarri eta zoro bat dakarkigu, umore beltz eta heldua erabiliz. “Rick eta Morty” bidaia zoro bat da, eta bidaia honetan denak balio duen arren, onena da trama zoro horietan guztietan zehar perla txikiak

utziz doazela, kritika sozial eta politiko moduan. Kapitulu bakoitzak kritika zorrotza egiten dio egungo gizarteari, helduentzako, eta ez hain helduentzako, animaziozko telesail handien lekukoa jasoz. Komedia animatuak gustuko dituzuenentzat ezinbestekoa, baina bereziki, umore frikian eta zientzia-fikzioan oinarritutako komediak atsegin dituztenentzat, horiei egindako keinuak eta parodiak ere ugariak direlako ekoizpen honetan.

Primal

HBOMAX | 10 atal

Elkarrizketarik ez duen harribixia da, historiaurreko garai zehatzugabe bezain irreal batean girotzen dena. Bertan, gizakiak dinosauroekin bizi dira. Magia ukituak ere badaude, nahiz eta guztia eromenezko basakeria batean laburbiltzen den. Hungarritasun sinesgarria helarazten du telesailak, ezinbestekoa mundu anker horretan. Azken finean, gizon eta dinosauro baten arteko laguntasun berezi eta bakararra kontatzen du.

Genndy Tartakovsky sortzaileak naturarik primitiboaren krudelkeria eta indarkeria islatzea lortzen du, bere azken ondorioetara eramanez. Inor ez dago oihaneko legetik salbu, eta hori hasieratik argi uzten digu indarkeriazko eszenekin eta mugarik izango ez duen basakeriarekin. Marrazkiak ikusgarriak dira oso, ez bakarrik paisaiengatik eta eskaintzen dituen tonalitateengatik, baita erabili dituzten trazu originalengatik ere. Dinamismoari dagokionez, atal motz eta oso entretengarrien bitartez, lagun bikote honen abenturak lehen pertsonan biziartzen dizkigu.



Ana Elosgi Serna
Harremanak Hezkuntza Elkarteko kidea

Pandemiaren biharamuna, urte berriaren erronka

osasuna / harremanak / teknologia

2022a izango omen da pandemia kontrolatu-ko den urtea, dela pandemia, dela plandemia dela delakoa... Azken bi urte hauek eromena izan dira. Alderdi fisikoak alde batera utziz, osasun emozionalean edo adimen osasunean zentratu nahiko nuke gaurkoa... Biharamun emozionalak izugarria izan behar duelako, olatu erraldoia etortzeko baitago!

2022ak ekarriko diguna urte hauen biharamun emozionala izango da: jendartea puskatua, antsietatea, frustrazioa, gehiegizko kontsumoak, atrakoiak edo anorexiak, baita ere joko adikzioa, drogen gehiegizko kontsumoa gazteen artean eta hain gazte ez direnetan. Horiek guztiak dira egunero kontsultan ikusten ari garen kasuistikak.

Hainbat eta hainbat psikologo, homeopata, aditu, psikiatra, haur terapeuta, mediku holistiko abisatzen gabilta egoera oso konplikatua dela, inoiz ikusi gabeko kasu kopuruak artatzen gabiltzala. Baina gobernuek ez dute lehentasunik jarri gai honetan, dirulaguntzak zentro berriak irekitzeko eskasak dira, psikologo profilik apenas existitzen da osasun publikoan, hau da, ematen zaion garrantziaren parekoa... Aurrekoan Patxi Izagirre lankideak, horren adibide gisa jarritz, iritzi artikulua batean aipatzen zuen, pandemia guztian ez dela psikologorik kontratatu ZIUetan pazienteei edo beraien senitartekoei arreta eskaintzeko.

Aurretik inoiz ez bezala, eskoletan nerabe eta haurren osasun psikologikoz hitz egiteko saioak eskatzen ari zaizkigu, irakasleek ez dakitelako nola artatu kasu hauek, ez daki-


telako nola tratatu gazteak, eta haurren kasuan, nola bideratu: autolesioak, suizidio saiakerak, adikzioak...

Ilusioa eta itxaropena falta dira, garai batean erabiltzen genuen «bizipoza» kontzeptu ederra. Gazteei erronka berriak eta zaharrei ilusioa piztu behar diegu, jendarte hobe bat eraikitzeko ilusioa eta bizitza bizitzeko ilusioa... Azken bi urte hauek bizitzeko gogo kendu baitigute: etxeratze agindu desproporzionalak, protokolo hertsia, harremanen haustura, kontakturik eza, distantzia soziala, teknologia berrien erabilera brutala... horiek guztiak jendartearen depresio sakonera eta beldurrera eraman gaituzte.

Hortxe dugu, beraz, erronka: 2022an bizipoza eta ilusioa bultzatzea, sendatzea eta berriz ere denok martxan jartzea. Bi urte hauetan mezu guztiak beldurgarriak izan dira. Has gaitezen arnasa mezuak ematen, bi urte oso luzeak dira penatan egoteko. Dantza, musika, hartu-emana eta harremanak behar ditugu inoiz ez bezala! Taldeak sortu behar dira mendira joateko, musika taldeak, talde terapiak, nerabeekin gai ezberdinak lantzeko taldeak. Nerabeek egitasmo berrietan parte hartzen dutela sentitu behar dute, erronka berriak, ikasketa berriak, esperientzia berriak.

2022a izan dadila ametsak egia bihurtzen hasteko urte berria. 2022a izan dadila atsedean urtea, plazer urtea, denok sendatzeko urtea, osasun fisikoa eta emozionala beste modu batean ulertzeko urtea. 2022an osasun mentala seriotasunez hartu eta behar duen lekua eta garrantzia emango zaion urtea izan dadila! •

2022a izan dadila ametsak egia bihurtzen hasteko urte berria. 2022a izan dadila atsedean urtea, plazer urtea, denok sendatzeko urtea, osasun fisikoa eta emozionala beste modu batean ulertzeko urtea. 2022an osasun mentala seriotasunez hartu eta behar duen lekua eta garrantzia emango zaion urtea izan dadila! •



Pandemiaren bi urte luzeek utzi duten arrasto emozionala latza da. 2022. urtea izan dadila hori sendatzen saiatzeko urtea. GAUR8

3 BEGIRADA:

{ koaderno } Iker Barandiaran

Kritikotasuna ez da bando batean lerrokatzea

Azer garai nahaspilatsu eta kakaztuak bizi ditugun. Gure bizitzak txarrera aldatu dituen pandemia hasi zenean eztabaidak izan nituen gaixotasuna asmakizun bat zela zioten hainbatekin, batez ere ordura arte ezer ezbaian jarri ez eta bat-batean jende 'kritikoena' bilakatu den horrekin. Informazio iturri alternatiboenak jarraitzen dituzten ustearekin erdibideko argudiorik entzun nahi gabe euren bakarrik defendatzeko prest agertzen direnekin. Horregatik eta horien argudioak ultraeskuinekin erabat bat zetozelako, aitortzen dut ez nintzela inola ere ukatzaileekin lerrokatu, horren jatorriari usain susmagarria hartzen niolako.

Hartu genuen txertoa gutako askok, baina jarraitzen du pandemia honek –horren eragina hedabideek biderkatuta– eguneroko bizitzan ehunka oztopo, beldur eta giza jarrera txarrenak anplifikatuz. Eta nazkatuta nago. Badira txertatu ez direnak satanizatu eta guztiaren errua haiei leporatzen dieten asko. Horra hor, esaterako, “Gara”-n duela gutxi Victor Morenok idatzitako “Covid-19 y Black Friday” zutabea. Lotsagarria iruditu zitzaidan halako egunkari batek eskaintako aparteko lekutik txertatu ez direnen kontra halako irainak eta mezuak jaurtitzea. Izan zaitezke txertoaren aldekoa, baina uste dut dagoeneko argi eta garbi gelditu dela errua eta fokua ez dagoela txertatu ez diren horiengan. Izan ere, txertatu direnek ere har eta kutsatu dezakete birusa.

Historian gizartera bestelako txerto batzuek ekarri dituzten onuren ganean gutxi dago eztabaidatzeko; beste kontu bat da covid-19aren ingurukoa ganoraz probatzeko astirik izan ote den; eta beste bat ezin dela inor derrigortu txertoak hartzera. Eta are gutxiago txertatu ez denari eskubideak –guztiontzat berdinak direnak– ukatzea. Hiru horiek gainditu ezinezko lerro gorriak dira, nire ustetan.

Ez dut inola ere covid pasaportearen alde egingo; ez du inola ere bermatzen birusaren zabaltzea ekiditea; eta esan bezala, eskubide urraketa beldurgarria iruditzen zait, orain arteko muga guztiak gainditu eta bestelako neurrietarako bidea zabaltzen duena. Gainera, agiri hori eskatzea agintzen zaionari (eragilea, tabernaria, zerbitzu emailea...) ez dagokion papera betetzea ezartzen zaio, poliziarena, eta lortzen den bakarra da gizartea haserretu, banatu eta apurtzea.

Eta badirudi horixe dela, hain zuzen, kanpaina zabal honen helburua: gure artean haserretu eta banatzea. Gobernuak, gizartearen onurarako benetako konponbideak bilatu beharrean, osasun publikoari baliabideak kentzen dihardute, eta itsu-itsuan txertoak barra-barra jartzea dute helburu bakarra.

Bitartean, txertoaren kontrakoak, covid-ziurtagiria onartzen ez dutenak eta gaixotasuna existitzen ez dela diotenak ultraeskuineko mamuak nahastuta orain arte ezezagunak ziren plataforma ilunen izenpean

Gobernuak, gizartearen onurarako benetako konponbideak bilatu beharrean, osasun publikoari baliabideak kentzen ari dira

manifestatzen dira; euren burua biktimatzat eta “egia” dakiten bakartzat izendatuta, gainontzeko guztiokin haserre.

Eta non gaude beste guztiok, txertoaren derrigortasunaren kontra gaudenak, ziurtagiri hori eskubide urraketa itzela iruditzen zaigunak, bateko zein beste muturrekoek baino ñabardura gehiago ikusten ditugunak, lehen eta orain gauza askorekin kritikoak garenak (horregatik ez gara baten zein bestearen iturriez fio); eta deitu iezaiozu farmazetika, polizia edo kapitalaren interesekin zein bat-batean alternatibo mozorroa jantzen duen ultraeskuin ultraliberalarekin identifikatuta sentitzen ez garenok? •

«Bizitzak ezin du izan jaio eta hil; beti egongo dira kolpeak»

Lau urte atzera, esklerosi anizkoitza diagnostikatu zioten Mikel Lizarralderi (Eibar, 1980). Zerua ilundu zitzaion bat-batean, eta bereak egin zuela pentsatu. Hilabeteak joan, hilabeteak etorri, gaixotasunaz ikasi du, gaixotasunarekin bizi, eta gaixotasunari ikusgaitasuna emateko ekimen politikak burutu. Bizitza bera ere aldatu dio esklerosiak, eta onerako. “Nire erreferenteak” bideo sorta ari da erakusten azken hilabeteetan sarean: gaixotasun edo kolpe latz bati baikortasunez begiratu dioten lagunen testigantzak.

Nor zaitugu, Mikel?

Mikel Lizarralde naiz, eibartarra. Lau urte atzera esklerosi anizkoitza antzeman zidaten. Hasieran kolpe latza hartu nuen, zulo sakonera jausi, baina kirolari eta emazteari esker, zulotik atera nintzen. Erietxetik irten ginenean oroitzen naiz emazteak esan zidala, ‘ikusiko duzu, egoera honek gauza onak ere ekarriko ditu’, eta nik erantzun: ‘Maria, ez zaitez pasa, nola izango da ona?’. Gorpil aulkiak bakarrik ikusten nituen, horrela bukatuko nuela azkar, baina ez da hala izan.

Nola izan zen esklerosi anizkoitza jakinarazi zizuten prozesua?

2018ko otsailaren 3a izan zen, Eibarren San Blas opila be-deinkatzen den eguna. Mendian gora nindoan korrika, nekatu antzean. Maldan behe-ra bikoitza ikusten hasi nintzen. Sakelakoa begiratu nuen eta gainesfortzuagatik izan zi-

tekeela irakurri. Bi egunera berriz gertatu zitzaidan eta beldurtu egin nintzen. Mendaroko erietxera joan ginen, begietako zerbait zela uste nuen. Analisisien emaitzak eman zizkidatenean kolpea hartu nuen, medikuak burmuinean orban batzuk agertu zirela esan zidalako. Mielina galerarekin zerikusia daukan diagnosia zen. Mielina burmuineko neuronak eta neuronen arteko konexioak babes-ten dituen mintza da. Kableak babesik gabe geratzearen pare zen diagnosia. Kableak hausten dira, eta niri bistan eragin zidan. Beste gaixo batzuei hartzetako sentsibilitatean eragiten die, edo txizari ezin eutsi, gorpil aulkian bukatu... Gazteen artean lanerako ezintasuna eragiten duen bigarren kausa dela jakin nuen, eta 1.000 lagunetik batek jasaten duela. Eibarren kasuan, esaterako, 27 lagun gaude esklerosi anizkoitzak jota. Pasatzen zaizun arte, ez zara jabetzen zenbat jende jasaten ari den gaixotasun jakin bat.

Nola izan ziren diagnosia osteko egunak, hilabeteak?

Ni ondo nengoen. Mendaron zeuden gaixo gehienak baino osasuntsuago. Bizkarreko ziztada egin zidatenean, edo kortikoide piloa eman, kolpe handia hartu nuen. Hilabete eta erdi pasatu zen diagnosia baieztatu zidaten arte, baina nik Interneten kontsulta asko egin nituen. ELA ez zela bane- kien, dagoen esklerosi hilko- rrena, baina baita gorpil aul- kian buka nezakeela azkar. Esklerosi anizkoitza antzema- teko egiten den ziztadan bi baliotan positiboa ez ematea da gakoa, gaitzaren bertsio

txarrena, ELA baztertzeko. Bakarrean eman nuen positi- bo, eta gaitz erdi. Baikorra, burugogorra naiz, eta egoera- ri aurre egin diot. Gaitzak be- rak ez du aurrera egin mo- mentuz.

ELAko kasu ezagunak badi- ra, Juan Carlos Unzué futbolari ohiarena, batez ere. Ize- na entzute hutsarekin beldurra eragiten duen hitza da esklerosia.

Hala da, bai. Zorteduna naiz. Nire arrebaren lagun min bat neurologoa da, eta esan zidan, ‘lasai egon, goiz antzeman di- zugu-eta’. Asier de la Iglesia saskibaloi jokariaren elka- rrizketa bat irakurri nuen, es- klerosi anizkoitzak jota, eta ez nuen ulertzen nola zen posi- ble hark jokatzeko segitzea. In- formazioa bilatu nuen, eta ja- betu gaitza antzematen dizutenetik heriotza iritsi bi- tarte 40 urte irauten dugula esklerosi anizkoitza dugunok. Pentsatu nuen niretzat, ‘bue- no, 78 urte bete arte eutsiko diot’. Gerta bailiteke gaitzak aurrera ez egitea gure kasuan. ELA askoz hilkorragoa da, 3-5 urtean. Gure kasuan ez. Kolpe- ak ditu, eta mielina jaten du, baina agian ez. Agian ez da beste kolperik etortzen.

Botikarik bada, gaixotasuna kontrolatzeko?

Botikekin kolpe horiek kon- trolatzen saiatzen dira, baina ez dago kolpe horiek galaraz- teko bermerik. Gurean, eta zo- rionez, Osakidetza daukagu, botikak ordaintzen dituen osasun zerbitzua. Pastilla har- tzen hilabete batzuk darama- tzat, lehen injekzioak hartzen nituen, askoz hobeto orain pastillarekin.

MIKEL LIZARRALDE

ESKLEROSI ANIZKOITZA GAIXOTASUNEN ERAGILE SOZIALA

Lau urte daramatza esklerosi anizkoitzarekin elkarbizitzen. Gorputzean bezainbeste eragin dio gaixotasunak bizitzari begiratzeko tenorean

Kirolzalea zara, eta kirolean bilatu zenuen bizipoza.


Hasieran gainbehera azkarra izango zela uste nuen, baina sarean ikusi nuen nire gaitz bera zeukan jendeak maratoiak eta triatloiak egiten zituela. Hor zerua parez pare ireki zen niretzat. Bizitza aktibo bat egiteko aukera ikusi nuen, bizitza normala. Egoerari buelta ematen hasi nintzen. Mendaroko erietxeko neurologoak esan zidan, testuak: ‘Esadazu zer irakurri duzun sarean, eta dena ezeztatuko dizut’. Gaitza zer den eta ez den esplikatu didate, eta goiz harrapatu naute. Esperantza daukat.

Oinazetik eduki al duzu?

Ez. Ni ondo nago. Ez daukat kexarik.

Bizitza aldatu al dizu gaixotasunak?

Bai. Gauzak garbi uzte aldera, ez dut gaixotasunaren apologiari egin nahi. Alegia, nahia-go izango nuke bihar bertan gaitzik ez edukitzea, baina aitortu beharra daukat diagnosiak bizitza bera gehiago baloratzea ekarri duela. Oso bizitza eroso neukan esklerosi anizkoitza diagnostikatu baino lehen: emaztea, bi alaba eder, lantokia ordu erdira oinez, enpresa on batean... Dena neukan, baina ez zara horretaz jabetzen baja hartzen duzun arte, gurpil aulki batean buka dezakezula erreala dela sumatu arte. Zertarako zainduko du emazteak tonto bat? Gauza horiek pentsatu nituen, baina ez zen hala izan. Emazteak nirekin jarraitu zuen, animoak ematen. Meritu latza dauka, gauza onak ekarri dizkit. Pixkanaka ige-



rian hasi nintzen, gero korrika, bi kilometro sei minutuko erritmoan, lau hilabete lehenago maratoi bat korritu eta gero. Kirolak hobekuntza ekarri zidan, dieta ere aldatu nuen, eta lagun batek esan zidan: ‘eredu bat zara gaitzari aurre egiten ari zaren moduagatik’. Nik niretzat pentsatu nuen, ‘eredu’ hitz potoloa zela, eredu bazara ezin duzulako kale egin, dena perfektu egin behar duzu, eta nik ez daukat inpresio hori nire egunerokoa. Komunera joaten naiz jende guztia bezala, eta ‘eredu’ ez den beste hitzen bat egin behar da. Markel Irizar txirridulari ohiak eman zidan ideia. Erreferente esan zidan. Hortik nire bideo bildumaren izenburua.

Zure lan bizitza ere aldatu du esklerosiak.

Bai. Gaixotasunarekin jabetu nintzen urte asko geratzen ziztaizkidala lanean, eta aldatzea erabaki nuen, nire gustukoa izango zen lanbideren batean jardutea. Oso eroso bizi nintzen, Codesyntax enpresan, eta autonomo egin naiz, marketinarekin zerikusia daukan proiektu propio batean. Alabekin lasaiago egon nahi nuen, kirola egiten ere bai. Lanean ere antzera, lasaiago jardun. Lanorduak beteta ditut, dagoeneko, urtarrietik aurrera, proiektu berrian, eta gustura nago. Norberak berea sortzea da gako. Aititek bere tailerra sortu zuen, aitak eta amak berdin, eta grina hori baneukan. Lanean gustura aritu nahi nuen, baina lana guztiaren erdigunea izan gabe, eta lehen neukan lanak asko mugatzen ninduen.

Zenbatek esan ote dizute, esklerosi anizkoitza duzula jakinda, zori txarra izan duzula?


Zorte txarra? 40 urtean kolpe txar bakarra jaso dut! Beste guztiak oso onak izan dira. Gauzak baloratzean azter dezagun argazkia modu osoagoan. Momentu txarrak edukitzea ona da, nik ere edukitzen ditut sarri. Elkarrizketatu ditudan lagun askok esan didate psikologo batekin egon direla, laguntza profesionala behar dela aurrera egiteko. Jendeak ni irribarretsu ikusten nau ia beti, baina beti ez da horrela. Dena ez da zoragarria, ez dut hori erakutsi nahi.

Ez baitago gaixotasun larri baten zehar kalteak sumatzea baino ezer hobirik, zer ezgauza garen jabetzeko.

Nik gurpil aulkian buka neza-keela sumatu nuenean, mendira joan nintzen korrika badaezpada. Bihar ikusiko dugu zer gertatzen den, baina gaur izerdia bota, edo alabekin parkean egoteko aukera baduzu, egin.

12 lagun elkarrizketatu dituzu, euren testigantzak bildu. Nola ernatu zen proiektua?

Gogoan dut Euskadi Irratiko "Faktoria" saioan elkarrizketa bat egin zidatela, Manu Etxezortuk, eta horren harira Zegama-Aizkorri mendi maratoi-ko antolatzaileek dortsal bat eman zidaten. Proba hori osatzea ametsa zen niretzat. Ordura arte egin gabeko probak egin nahi nituen; zeresanik ez Zegama-Aizkorri, ama zegamarra izanda. Egin nuen, eta oso gogorra izan zen, baina oso polita ere bai. Zure lagunak, familia, kamisetekin mendi bazterretan... 150 kamiseta saldu nituen, eta 750 eu-



ro eman nizkion Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitzaren Elkarteari. Orduan jabetu nintzen nire jardunak oihartzuna zeukala. Ez naiz *influencer* delako bat sentitzen, ez zait hitz hori eta bere filosofia gustatzen. Nik jendeari lagundu nahi nion, ez lortzen nuen oihartzun horri etekin ekonomiko soilera atera.

Ez da ekimen bakarra izan. Gipuzkoako herri guztiak bisitatu zenituen bizikletan.

Pandemia garai beteetan egin nuen, 12 egunetan, Gipuzkoako 89 herrietatik, eta lasai-lasai, presarik gabe. Bizitza aktiboaren onurak transmititu nahi izan nituen, baina neurrian. Esan nahi dut, nik 80 bat kilometroko etapak egin nituen. Asko dabilen baten-

«Nik gurpil aulkian buka neza-keela sumatu nuenean, mendira joan nintzen korrika badaezpada. Bihar ikusiko dugu zer gertatzen den, baina gaur izerdia bota, edo alabekin parkean egoteko aukera baduzu, egin»

tzat huskeria da distantzia hori, baina hasi berria denarentzat, ba kopuru handi samarra. Neurriko bizitza aktiboa sustatu nahi izan nuen, muturreko ahaleginik egin gabe. Horrekin batera, bizitzak adarkadaren bat emandako jendea ezagutu nahi izan nuen, kolpe horri buelta eman diona, jarrera baikorrari eta kirolari esker. Bizikleta proiektua bukatu ostean hasi nintzen buruari bueltak ematen. Kooperatibek badituzte funts batzuk ekimen sozialak garatzeko. 3.500 euro lortu nituen eta Pello Osoro lagun hasi nintzen 12 pertsona horien bideoak grabatzen.

Nola bilatu zenituen elkarrizketatutako lagunak? Zer irizpide finkatu zenituen?

Markel Irizarrekin hasi nintzen, oso goian. Markel erreferente bat izan da niretzat, eta jende askorentzat. Ainhoa Lendinez izan zen bigarrena, EITBko kazetaria, eta hirugarrena Ibon Oregi, istripu batean hanka galdu zuen kirolaria. Istorio bat duten pertsonak dira, eta nire istorioa bigarren mailan utzi dutenak, nik hala bilatuta, ez baitut protagonista sentitu nahi izan. Kontua ez da lezioak ematea, Markel Irizarrek bere aitaren suizidioa nola gainditu zuen goratzea baizik. Edo Ainhoa Lendinezek Himalaiara joatea nola lortu duen, gaixotasun bat pasa ostean, haiek ispilu izatea. Haietzat baliagarri izan den zerbait elkarrizketa ikusi duenarentzat ere baliagarri izatea da bideoen helburua.

Hiru izen nabarmendu dituzu. Beste izenik aipatu nahi zenuke?

Bueno, denak, ez? Nere Arrietak zuntz displasia dauka jaiotzetik, hausten diren hezurak ditu, eta bizitza erabat baldintzatu dio horrek. Igor Elizburu gurpil aulkian dago 18 urtez geroztik. Orain 44 ditu. Motor istripua eduki zuen. Gaitasun latza dauka bere egoera barneratzeko. Gurpil aulkia bada gai tabu bat, eta orain hilabete batzuk esklerosia daukan telebistako aurkezle bati entzun nion, Bob Pop izena du: 'Pertsonak ez du gurpil aulkian bukatzen, gurpil aulkian bizitzen segitzen du'. Esaldi ona iruditu zitzaidan. Nik gurpil aulkian bukatuko banu, hori pentsatu nahi nuke. Elkarrizketatu ditudan gehienak ezagunak dira jendaratean, eta ahoz ahokoak asko lagundu dit. Elkarrizketatuek beraiek ere arrastoan jarri naute sarri. Auzolana izan da. Ezezkoren bat ere jaso dut, ez pentsa, kamera aurrean espresatzeak beldurra ematen dielako. Zailtasunak zeuzkaten batzuk beste gaixoen bideoak ikusiz animatu dira. Enpatia handia da nire eta elkarrizketatuaren artean, ze ez naiz kazetaria formazioz. Nire eta elkarrizketatuaren arteko erosotasun hori funtsezkoa izan da bideoak egiterakoan. Asko hitz egin dut elkarrizketatuekin, harremana sendotu.

Ez da proiektu komertzial bat.

Ez, bideoak Youtube kanalean ikus daitezke. Etorkizunean, akaso, dokumentala egingo dugu. Ez dut gaixotasunaren inguruan bizi nahi, garbi daukat. Kontzientzia garbi eduki nahi dut. Irudipena dut badi-rela hainbat pertsona, izaera

«Beste pertsona batzuk, kolpe handiak jaso arren, aurrera egiten saiatu direla eta baikorrak direla ikasi dut elkarrizketen bidez. Eta hori partekatzea ikaragarria da. Ederra izan da»

publikoa dutenak, gaixotasun bati esker bizi direnak. Diru asko biltzen dute, baina horretaz bizi dira. Ez ditut kritikatzeko, edo juzgurik egin nahi, baina nik ez dut hori egin nahi. Nik nire izerdiari esker bizi nahi dut, ez nire gaixotasunari esker. Niretzat bideoak ihesbidea dira, ez bizibidea. Esklerosia dutela jakiten duten lagunek bizitza normala egin daitekeela jakitea da nire asmo xumea.

Elkarrizketatuen artean, nork harritu zaitu gehien?

Zaila zehaztea. Ia denek. Denek dute zerbait. Markel Irizar sumendi bat da, Ainhoa Lendinezek helburu bat finkatzeko zer erraztasuna daukan ha-

rritu nau. Ibon Oregiren ke-mena, Nere Arrieta gurasoa da, Uxo Irigoienena... Denek botatzen dute perlaren bat. Igor Elizbururen esaldi hau, adibidez: 'Gurpil aulkia ipurdian eramaten da, ez buruan'. Edo Markel Irizarrek esandakoa: 'Bizitza gazta baten modukoa da, eta erdia jan dugu, dagoeneko'.

Zer ekarri dizu pertsonalki, lan honek?

Beste pertsona batzuk, kolpe handiak jaso arren, aurrera egiten saiatu direla eta baikorrak direla. Eta hori partekatzea ikaragarria da. Ederra izan da. Sarri lasterketak irabazi izanagatik da ezaguna jendea, adibidez Jokin Lizeaga


mendi korrikalaria, baina orain pasatu duen gurutze bideagatik ere egin da ezagun. Bideoak ikusi dituen jendearen *feed back*-ak asko bete nau.

Zein izango da zure hurrengo kirol erronka?

Azpeitiko 40 Miliak proba, 65 bat kilometro, maiatzean. Distantzia luzeko lehiaketek erakartzen naute, baina egun bakarreko probak. Hiru Haundiak litzateke nire muga. Hori baino gehiago, nekez.

Eta zure hurrengo erronka gaixotasunei ikusgaitasuna ematen jarraitzeko?

Hamabi bideo hauekin dokumental bat egitea, ziurrenik.





...
ITZULTZEKOTAN NAHI DIT
ITZULI KANTARI

XANTI IPARRAGIRRE
1934-2022

W'22



Unai
GAZTELUMENDI

iRRITZIA: {

A scenic sunset over the ocean. The sun is low on the horizon, casting a golden glow over the waves. In the background, a lighthouse is visible on a cliff. The overall mood is peaceful and hopeful.

*Bihar ere
argituko du egunak.*

URTE BERRI ON!

GAUR8 

Desio bat eta bakarra

Antton Izagirre

Izaten dira ba urteak, «joanda balego hobe» pentsarazten dizutenak, nork ez du horrelako bat izan? edo nork pentsa lezake ez duela etorkizunean izango?

Aurten ez diozu Olentzerori idatzi, edo hobeto esan, aurten ez etortzeko esateko idatzi diozu. Aurten etxeko tximinia itxita izango duzula eta ez diozula goxo eta ardorik utziko idatzi diozu. Aurten oparirik ez ekartzeko, baina hala ere, ez mintzeko zurekin, ulertuko duela eta. Eta urte berrira iristean, urteroko mahatsen orde, gehienez ere ma-

haspasak irentsi dituzu eta urte berrirako desio zerrenda egiterakoan ez duzu hitz bat besterik topatuko; osasunari deituko diozu aurten.

Non jarriko dituzu ba lehentasunak, gehien maite duzun pertsona gaixotasunarekin borrokan ari denean edo zure lagunik handiena birus maltzur horrek jota eri duzunean edo kuadrillako beste lagun hark bihotza ahul duenean?

Agian inoiz ez zenuen pentsatu ere egingo urteroko desio zerrenda luze hura, «egunero korri egin edo bost kilometro ibili, gimnasia joan, erretzeari

utzi, kilo batzuk kendu, yoga egin, bizimodua moteldu, lagunekin gehiago egon, bizitza kalitatea hobetu, neure burua maitatu, irribarre egin, zoriontsua izan...», desio bakar batera mugatuko zenuenik.

Baina nolakoa den bizitza, hain sinplea eta aldi berean hain bete, pentsatuko duzu. Bai, urte berrirako zeuretzat eta gertukoentzat ez duzu besterik desio, hitz bakar batekin beteko duzu bizitzaren orri zuria.

Eta beste guztiontzat, urtero bezala: zorionak eta urte berri on! •

Auto

Miren Azkarate
Badiola

Modako hitz bat dugu beti ahoan, bat-batean egunean hamaika aldiz eta alde guztietatik entzuten duguna. Garaian garaian beti izan dugu bat: ETA, pandemia... Ziur zuei askoz gehiago datozkizuela burura. Bada, orain, hitza baino aurrizki bat dugu azken egunotan hortxe traka eta traka eta traka: «auto-». Autotestak, autokonfinamenduak, auto-rastrea, auto-bajalaborala, autokarabana (aizue, umore pixka bat! Eta gainera, nire inguruan modako hitza da hau ere bai)... PNV-EAJk esaten zizunean «autogobernu gehiago eskatuko dugu eta lortuko dugu», hau ote zen? Edo hau da alderdi egunean oihuka-

tzen duten «In-de-pen-den-tzia!»? Oso auto eta oso independente izateko errepikatzen ari zaizkigu eta... Gehiegi agian!

Hau guztia hain larria izango ez baltz barre egingo nuke, baina honezkeror PNV-EAJk barregura gutxi eragiten dit. Beraien azkenak barregurea sortu ez, baizik eta amorru handia eragin dit: Rosa Zarra auto-hil omen zen! Ez zuen bost metrotara bota zioten gomazko balak hil. Berdin-berdin hilko omen zen. Txalo bero bat Ertzaintza eta PNV-EAJ! Noski hilko zela noizbait, denok bezala, zuek bezala. Baina hau ez zen heriotza natural bat izan, badakigu guk eta badakizue zuek.

Nola ez, historia honetan EITB ere azaldu behar zen. Zein azkar errektifikatzen duen segun zer eta segun nork eskatzen diona! Batzuek, eskatuta ere ez dugu inoiz lortu errektifikazio bat esan dituzten izugarrikeria batzuegatik; dela Galindo goraiatu zutenekoa edo dela beraien kazetari bat notiziarekin zerikusirik ez zuen Guardia Zibilaren txaleko batekin azaldu zeneko hura. Auto-errektifikatu zaitezte!

Ez dut inoiz ulertu nola bozkatu daitekeen PNV-EAJ, baina gero eta zailagoa egiten zait ulertzea, benetan. Norbaitek azalduko balit, asko eskertuko nuke. Ea 2022an lortzen dudana. Bitartean, *auto-jozantzaitzeturritamesedezya!* •



> Momotxorro, negazionista, zatzaizkit

UZEIk 2021ean zeresana eman duten 18 hitz edo esamolde hautatu ditu, urtero egin ohi duenez, umore puntu batekin. Pandemia, hornigaiien urritasuna, berdintasuna edo argindarraren krisia izan dira urteko gai nagusietako batzuk. Urtean zehar jaso diren hurrenkeraren jaso dira hitzak; alegia, kronologikoki antolatuta zerrendatu dira. Urtarrilean AEBetako Kapito-



lioan indarrez sartu ziren Trumpen jarraitzaileekin hasi genuen urtea. Hitza, momotxorro, Altsasukoak gogoan hartuta. Urtarrileko azken egunetan Donostiako Ondarreta hondartzan marmoka edo plastiko itxurako zerbait aurkitu zuten. Zer izango, eta salpak! «Txortaketa masiboa», negazionista, zatzaizkit, labakolada edo itzalaldi elektrikoa ere aipatu ditu.



> 234.545 bisitari Aquariumak

Azken urteko zifrei begiratu, ez da balantze makala Donostiako Aquariumak egin dezakeena. Edukiera murriztuta izan arren eta mugikortasunean jarritako mugen gaintetik, 234.545 pertsonak bisitatu baitzuten 2021ean, aurreko urtean baino %54 gehiago.

Ohiko zifretatik urrun daude zenbakiak oraindik, halere, pandemia aurretik 300.000 bisitari baino gehiago izaten baitzituen. Izurriteak, beraz, berriz baldintzatu du balan-



tzea. Hala ere, urte «zaila eta konplexua» izanda ere, batez ere lehen sei hilekoan mugikortasunean indarrean egon ziren mugak kontuan hartuta, uda aldeko datuak bereziki onak izan ziren. Bisitari gehien uztailan (34.572) eta abuztuan (48.693) izan ziren. Bi hilabete horietan, 83.265 bisitari. Erronka eta plan berriak ditu hurrengo hilabeteetarako, erakusketa berriak eta digitalizazioa, webguneko sarrerak «izugarri» igo baitira.



> Ikusmen murrizta

Ikusmen murriztuaren inguruko elkarteek gaitzari buruzko kanpaina bat jarri dute abian, ikusmen urria izateak zer suposatzen duen azaldu eta sortzen dituen zailtasunen aurreko kontzientziazioan sartzeko. Horretarako, hainbat baliabide sortu dute, tartean egoera ezberdinak laburtzen dituen bideo berri-



bat, «hobeto uler gaitzazun». Ikusmen urria izateak esan nahi duena azalduz abiatzen da mezua. Gaitza pairatzen dutenek begiak itxuraz osasuntsu izan arren %30 baino gutxiagoko ikusmena dute, eta ezin da «betaurreko, kontaktuzko lenteekin edo tratamendu farmakologikoarekin» hobetu.



Maite Oronoz Anchordoqui

Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea, UPV/EHU

Sare sozialetako hizkuntza automatikoki aztertzen depresio zantzuen bila

Aurrekoan «Administrazioa Euskaraz» aldizkarian SARS-Cov-2 birusak suizidioen epidemia ekarri duela berekin irakurri nuen (Oihana Cabello, IVAP, 114. alea). Depresioek, adikzioek eta antzeko gaitzek, baita bakardade eta isolamendu sentazioek ere, gora egin omen dute. Denbora tarte horretan, hizkuntza-teknologiak eta osasuna uztartuko lituzkeen proiektu batean pentsatzen hasi ginen Ixa ikerketa-taldean. Depresio zantzu horiek sare sozialetan, Twitter-en adibidez, isla izaten dutenez, horiek hizkuntzaren teknologiak erabiliz nola azter zitezkeen ikertzen hasi ginen.

Yates et al. (2017) egileen arabera, gaixotasun mentalak dituzten erabiltzaileek online baliabideetara jotzen dute laguntza bila, bai espezializatutako laguntza komunitateetara, baita Twitter edo Reddit moduko komunitate orokorretara ere. Aipatutako ikerlariak komunitateok aztertzen dituzte depresioarekin zerikusia duten posten bila eta «norberak aitortutako depresio diagnostikoekin» osatutako Reddit datu-sortaren (RSDD) berri ematen dute. RSDD bilduman Reddit sare sozialeko postak biltzen dira eta post horien multzo batean idazleak berak «depresio diagnostia» duela adierazten du. Post hauetan depresioa agertzen den edo ez, eta nork bere burua zauritzeko duen arrisku maila (anbar, gorria etab.) anotatzen da. Suizidio ideagintzaren ingurukoa da, berriz, “Life!” datu-sorta, zeinetan sare sozialetako mezuak alerta mailaren arabera (arriskurik ez, urgentea, posiblea, berehalakoa) etiketatzen dituzten, baita mezu motaren arabera ere (depresioa, tristura eta melankolia, suizidioaren inguruko kuriosi-

tatea...). Adimen artifiziala baliatuta eta datu-sorta hauek erabiliz, mezuak aipatutako kategoriatan (depresioa bai/ez, adibidez) sailkatzen ikasi ohi da, mezu berri bat jasotakoan, idazlearen egoera inferitzeko helburuarekin.

Guntuku et al. (2021) lanean ospitaleetako larrialdietara oso maiz joaten diren osasun-zentron “superabiltzaileen” sare sozialak aztertzen dira pertsona hauek beraien egunerokoan ulertzeko asmoz. Supererabiltzaileen mezuen azterketa linguistikoa egitean, hauen mezuek nahasmena, ezezkotasuna, saihestea eta antzeko egoerak adierazten dituztela ondorioztatzen da horretarako termino zehatz batzuk bilatuaz (mozkortuta, deseroso, suminduta, negarrez, urrun...). Pertsona hauek sare sozialetan lehen pertsonako izen ordainak erabiliz aritzen dira eta funtzio hitzak, esanahi lexiko txikiko hitzak, maiz erabiltzen dituzte.

Giza hizkuntzaren teknologiak erabiliz, osasun mentalarekin lotutako diskurtsoa eta sare sozialetan erabiltzen den hizkuntza automatikoki azter dezakegu, idazleetan depresio zantzuak detektatzeko. Hau oso garrantzitsua da gaixotasun hauek hasierako etapetan detektatzeko eta ondorio larriak ekiditen saiatzeko. Pribatutasuna zaintzeko modua bilatuta, osasun profesionalei informazio hau ahalik eta azkarraren helarazi beharko litzaeke, esku hartzeko aukera izan dezaten.

Irakurri ahal izan duzue, datu-sortak ikerkuntzarako beharrezkoak ditugu, baina gustatuko litzaidake, hasi berria dugun 2022 honetan zailtasun handiak izango bagenu sare sozialetan depresio seinale horiek topatzeko. Osasuna! •



Gaixotasun mentalak dituztenek sare sozialetara jotzen dute maiz.

GAUR8

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



FEDERICO AROZENA ETA GREGORIO QUEREJAZU. Foto ARQUÉ. GASTEIZKO UDAL ARTXIBOA.

1962KO NEGU HOTZA GASTEIZEN

1962ko negua mende hartako hotzenetako bat izan zen, prentsak jasotzen zenez. Errepideetan mozketak izan ziren, eta banaketa arazoak behar handiko elikagaietan. Gasteizen, abenduaren amaiera aldera, tenperaturak zeropeko 21era iritsi ziren. Gabon haietako elurte baten une bat jasotzen du argazkiak. Federico Arozena eta Gregorio Querejazu argazkilari gasteiztarrek osatutako tandemak hartu zuen irudia. Argazkiak euren abizenen inzialekin sinatzen zituzten: ARQUÉ. Gasteizko Dato kalean ateratako argazkiaren erdian, udaltzaina gabonsariaz inguratuta dago. Argazkiaren ezkerrean, desagertuta dagoen Banco de Vitoria ikusten da, eta eskuinean, Buesa lurrin-denda eta Goya gozotegia, besteak beste.

005 bidaiari

naiz: -en bidaia aldizkaria euskaraz

Lurralde
berrietara
goaz



dagoeneko
zure
kioskoan
salgai

1,50€

eta gainera...

VILLA DEL CASALE
TESELEN ARTEAREN
GORDELEKU

SIGIRIYA
«LEHOIAREN HAITZ»
ENIGMATIKOA

EKUADOR
MUNDUAREN
ERDIGUNEAN PASIERAN

SAIOA
ELUR-MINA
ASEZKEKO MENDIA

LANZAROTE
ILARGIKO
MAHATSONDOAK

Bertatik bertara Larhongo trenan **Egin planak** "Artea komikigintzan", Zama Doinuz Arindu, Sistiagaren atzera begirakoa, Tanttakaren "Semea pixka bat motelago dabil soilik"... **Hiriak laburrean** Budapest **Munduan pasieran** Orkak fiordoetan, sardinar bila, Cosquer haitzuloaren erreplika, m+, museo berria Hong kong-en, Rhone glaziarra estalita.

